

20
urtez
HITZA

2023
URTEKARIA

elkarrekin
euskaratuz
hauspotuz

LEA-ARTIBAI ETA
MUTRIKUKO

HITZA

lea-artibaietamutriku.hitza.eus
geureanbai.eus





Uribarren Abaroa

fundazioa ▶

Egoitza
Eguneko Zentroa

www.uribarren.es



94-684 00 55 • 630 98 87 90

Iñigo de Artieta etorbidea, 2 - 48280 LEKEITIO

Eskuz esku



LARRAITZ IBAIBARRIAGA ETXABURU

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZAREN ZUZENDARIA

A tzean uztear gaude 2023an bizi izandakoak, sentituta-koak, esandakoak... Edo ez! Haserretzeko eta tristetzeko asko ekarri du amaitze-argi dagoen urteak. Pozteko ere bai.

Euskarak betidanik jasan izan ditu kolpeak, eduki ditu aurkariak. Eta aurten ere horrela izan da. Euskararen biziberritzea helburu duten neurrien kontra auzitegietatik jasotako sententzia sortak kezka eragin du jendarte-ean. Euskararen normalizazio prozesua trabatu eta egindako bidean atzerapausoak eragiteko olatu erre-akzionario, atzerakoi eta euskarafobia eza- gutu dugu. Horren aurrean, Bilboko kaleak hartu genituen aza-

roaren 4an. «Nahikoa da» esan genuen. Gatiburen Zure ahoan lore bat abestiak dioen modura, hizkuntza batek ez daki egiaren ala gezurraren berri. Hori giza- kion kontua da. Hizkuntza batek ez du hormarik eraikitzen, kolorez pintatzen ditu; hizkun- tza batek ez du inor hiltzen, batu egiten gaitu; baina hori bai, hiz- kuntza bat hil egiten da.

Azaroko azken eguna lehe- nengo Greba Feminista Oroko- rraren lekuko izan zen. Zaintza eskubide kolektiboa eskatu ge- nuen milaka eta milaka herrita- rrek, hiruburuetan ezeze, herrie- tan ere bai. Denok behar dugun zaintzak denok behar gaituela- ko, biziraun nahi badugu.

Eraso eta indarkeriaz deteta- ko albisteen artean, pozteko arrazoirik ere eduki dugu HI- TZAn. Euskal Australiar Elkarte- agaz elkarlana egin dugu, memo- riak biziraun dezan; udan, web- gunea martxan eduki dugu lehen aldiz, gure herrietako al- bisteak muga barik zabalduz. Eta azarora iritsita, LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZAREN 20. ur- teurren ospakizuna egin genuen Lekeition, egunkariaren lehen zenbakia atera zen egun berean, 10 urte bete dituen Errigorako la- gunekin batera. Beste behin, euskara eskuz esku erabiltzeko konpromisoa berretsi genuen bertan bildutakoek, 2024 hobe baten esperoan.

Lege Gordailua: LG BI 02082-2021

Egoitza nagusia:

Arretxinaga Etorbidea, 1 • 48270 Markina-Xemein | Tel.: 94-684 44 36

Mutriku, Barrenkale, 19- behea | Tel.: 943 603 468

E-posta: lea-artibai@hitza.eus

Webgunea: www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus

Zuzendaria: Larraitz Ibaibarriaga Etxaburu.

Kudeatzailea: Ama Lur Bedialauneta Ibaibarriaga

Publizitate: Maribi Fernandez 600 57 14 26 | mfernandez@hitza.eus

Testuak: HITZA / Aintzina Monasterio Maguregi

Diseinua eta maketazioa: 11barri.eus

Argazkiak: Ainara Santamaria | Ainhoa Resano | Ager Solabarrieta | Ahaztuen Oroimena Elkartea | Alberto Beloki | Amorotoko Udala | Atabaka Kultur Elkartea | Aulestiko Udala | Aurrera KT | Baso Bizien Plataforma | Berriatuko Buruarinak | Berriatuko Futbol Taldea | Berriatuko Txirrindulari Elkartea | Berriatuko Udala | Biotza Bilbao | Bizkaiko Bertsotale Elkartea | Boga Boga Ondarroako Emakumion Elkartea | Danok Bat Pelotazale Elkartea | Dzanga Piragua Taldea | EH Bildu | Eika | Ekaitz Zilarmendi | Ekhi Aboitiz | Eraman | Espainiako Pilota Federakundea | Etxebarriko Udala | Etxelila | Euskal Herriko Hiru Txirlo Federakuntza | Euskal Zine Bilera | Euskaltzaindia | Eusko Ikaskuntza | Eusko Legebiltzarra | Fernan Aiertzaguna | Gizaburuagako Udala | Guk Jai Alai | Hamaika Telebista | Helmugak | Ibai Pastor | Ibilaldia 2023 | Ikasgelak | Irekia | Ispasterko Udala | Isuntza Arraun Elkartea | Itxas Soinua Na- zioarteko Musikaldia | Josu Arrizabalaga | Kantaize | Kide S.Coop | Kooperatiben Mahaian Elkartea | Langile Autodefentsa Sarea | Larruz Gazta | Lea Ibarra Motrollo Pilota Elkartea | Leartibai Fundazioa | Lekeitioko Udala | Lekittoko Deabruak | Lekittoko Mugimendu Feminista | Markina Shots | Markina-Xemein Esku Pilota | Mikel Agirre | Mendexako Udala | Mendexarrak | Munitibarko Udala | MRK | Musikaia Musika Eskola | Musikaldia | Mutriku Natur Taldea | Mutriku Sokatira Taldea | MX3T | Nerea Arrizabalaga | Ondarroa Arraun Elkartea | Ondarroako Udala | Pelotako Munduko Federazioa | RFEA/José Muñoz | Rusticac | Txantxangorri Aisialdi Taldea | Txik-Txak Kirol Elkartea | Udalbiltza | UEMA | Unai FF | Urko Ansa | Yaalah Elkartea | Zaldibar Argitu | Ziortza-Bolibarko Kontzertuak | Ziortza-Bolibarko Udala

ERREDAKZIOA Aulesti - Gizaburuaga - Ondarroa - Mendexa - Mutriku Naia Arantzamendi 607 49 01 63 | ondarroa@hitza.eus; mutriku@hitza.eus • Amoroto - Etxebarria - Lekeition - Markina-Xemein - Ziortza-Bolibar: Garaia Pagola Urriza 607 49 01 60 | markina-xemein@hitza.eus; lekeition@hitza.eus • Berriatua - Ispaster: Mikel Reina Barros 607 49 01 67 | lea-artibai@hitza.eus • Munitibar: Alex Uriarte Atxikallende 647 35 53 32 | ea@hitza.eus

Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ko kideak eta Lea-Artibai eta Mutriku-ko beste 59 eragile



2023AN HITZA DIRUZ LAGUNDU DUTEN UDALAK:

Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeition, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Mutriku, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar.




Hitza-k
Bai Euskarari



partekatu eta
lana egin



Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



2023 URTEKARIA



➤ Aurkibidea

Euskara	04
Ekonomia	06
Kultura	08
Kirola	10
Politika	12
2023 Zenbakitan	13

2023, hilez hil.

Urtarrila.	16
Otsaila.	20
Martxoa.	24
Apirila.	28
Maiatza.	32
Ekaina.	36
Uztaila.	40
Abuztua.	44
Iraila.	46
Urria.	50
Azaroa.	54
Abendua.	58

• LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO •



JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:

www.lea-artibaiaetamutriku.hitza.eus

Lea-Artibai eta Mutriku-ko Hitza [orrialdea]

@leakohitza



Josu Arrizabalagaren 'Ondarroako Hiztegixe'

ONDARROA // Ondarru berbetan webgunea martxan jarri zuen Josu Arrizabalaga Basterretxea ondarrutarrak. Herriko hitz eta esaera zaharren bilduma osatu, eta herritarren testigantzak bildu zituen.

Arrizabalagak esan zuenez, «euskara asko aldatu» da herrian, eta webguneak Ondarroan erabilitako berba, lokuizio, esaera, metafora eta abar eskaintzen dizkio jendeari: «Ondarroa duela gutxi arte erabat eta osorik izan da arrantzale herria, horregatik, bertan garatu den berbetak itsasoa eta arrantza izan ditu zimentarri eta ardatz. Sasoi batean gazte gehienak itsasari so bizi ziren bitartean, orain garbi dago beste bide batzuk hartzen dituztela. Joeira honek hizkuntzan ere izan du eraginik».



Etxebarria eta Mendexa, Uemako kide

LEA-ARTIBAI // Etxebarria eta Mendexa Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartu ziren martxoan eta abenduan, hurrenez hurren. Uemak martxoan gainditu zuen 100

udalen langa, eta urte amaieran, 106 udalerrri bildu zituen, eta, guztien artean, 332.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzera ailegatu zen.



Izen eta abizenen grafia euskalduntzeko kanpainagaz bat egin zuten

MARKINA-XEMEIN // Uemaren izen eta abizenen grafia euskalduntzeko kanpainagaz bat egin zuten Lea-Artibaiko Uemako kideak diren udalek, eta baita Markina BHIk ere. Hain zuzen ere, eskola komunitatean «indar berezia» eman nahi izan zioten kanpainari.

Tel. 94-606 18 95
Arana tar Sabin, 2
48700 ONDARROA

605 715 404 - 657 799 809

Egidazu kaia, 7 • ONDARROA • 94 683 21 68

era guztietako egur lanak

ateak, lorinak, leihoak, portak, sukaldak eta altzari montak

izan zaitez berba lagun!

• MAIUA GUZTIAK
A1-A2-B1/1.HE-B2/2.HE-C1/
3.HE/4A-C2/4.HE
• OHIKO IKASTAROK
oste barruan eta zapatuetan
• IKASTARO BEREZIAK
gurasoak, etorkinak, merkatariek, ostalariek...
• ON-LINE IKASTAROK
• Udalaren diru laguntza

LEKEITIO • MARKINA-XEMEIN • ONDARROA



Bertarik Bertara, ostalaritzan eta turismo sektorean

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Udalerrri Euskaldunen Man-
komunitateak bisitariek zein
bisitariekin harremana zuten
zerbitzueta langileek eus-
kara aintzat hartzeko helbu-
ruagaz, Bertatik Bertara kan-
paina jarri zuen martxan bes-
te uda batez. «Euskarazko
oinarizko hiztegia» jasotzen
zuten 300.000 bat mahai gai-
neko banatu zituzten ostala-
rientzat, beste hainbat mate-
rialen artean. Lehenengoz,
diptikoak banatu zituzten tu-
rismo bulegoetan, ostatueta
eta landetxeetan.

Markina-Xemeinek, Lekei-
tiok, Ondarroak, Amorotok,
Etxebarriak eta Ziortza-Boli-
barrek parte hartu zuten.
Kanpainaren barruan ez
egonda ere, Aulestin eta Mu-
nitibarren ere banatu zituz-
ten mahai-zapiak.

Euskararen kontrako oldarraldiaren aurrian, euskaragaz bat, euskaraz bat

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Euskararen aurkako epaien
kontrako auzitegien esku
hartzea salatzeko, euskara-
ren normalizazioan aurre
egiteko eta herritarren hiz-
kuntz eskubideak erdigune-
an jartzeko, Euskalgintzaren
Kontseiluak deitutako mani-
festazioan 70.000 pertsona
inguru elkartu ziren, *Olda-
rraldiaren aurrian, euskara-
rekin bat, euskaraz bat* lelo-
pean, azaroaren 4an, Bilbon.

Besteak beste, Espainiako
Auzitegi Konstituzionalak
bertan behera utzi zuen Eus-



kadiko Toki Erakundearen Lege-
aren 6.2 artikulua, eta epaia sa-
latzeko Uemako 125 alkate eta
hautetsi inguru Usurbilen batu
ziren uztailan, «euskaraz la-
nean segituko» zutela aldarri-
katuz. Arau horrek aukera
ematen zien udalei erakunde
barruko idatzizko dokumen-
tuak euskara hutsean egiteko.
Uemako jarduneko lehenda-
kari Iraitz Lazkanok esan zuen
«nahikoa zela eta marra gorri

guztiak gainditu zirela». Euskal Herriko hainbat herri-
tan mobilizazioak deitu zi-
tuzten. Mutrikukoan esan
zuten «kolpe handia» zela,
bereziki, Mutriku bezalako
udalerrri euskaldunentzat:
«Nahikoa da. Oldarraldi judi-
zial hau eten egin behar da.
Euskararen aurkako erabaki
judizialen aurka gaude eta
euskara zaindu eta sustatzen
segituko dugu».

Irudia



A

HK

AKARREGI HAGIN KLINIKA

ODONTOLOGIA OROKORRA • ORTODONTZIA • PERIODONTZIA • INPLANTEAK

Juan Jose Akarregi Loyola dokt. Kolegiatu zb. 573

Mediku estomatologoa

688 82 68 31 • 94-6842702 akarregi@clinicadental@gmail.com

Paskual Abaroa Etorbidea 26 bis-behea. LEKEITIO

Alma Brea Caballero

PODOLOGOA

Ostekokalea, 11 behea

Markina - Xemein

Aurretiko hizordua

652 07 82 72



Denboraldiko lehen antxoa kiloa, 5,11 eurotan

ONDARROA // Martxoaren lehen zabaldu zuten kostera ofizialki, eta denboraldiko lehen antxoa kiloa 5,11 eurotan saldu zuten Ondarroan, eta sortarik merkeena, berriz, 4,82 eurotan. Kantabrian arrantzatuta, oro har, antxoa gaztea saldu zuten bentan.



Talentua erakarri, ongizate maila hobetzeko

LEA-ARTIBAI // Lea-Artibai eskualdeko Garapen Ekonomikoaren Plangintza Estrategikoaren aurkezpenean, Lea Artibai 2030 plana aurkeztu zuten. Planaren helburua zen eskualdearen garapen ekonomikoari

bultzada ematea. Talentua erakartzea eta berrikuntza lantzea ardatzak izan ziren. Eskualdeko jarduera ekonomikoa eta kalitatezko lan aukerak garatzeko eta sustatzeko beharra nabarmendu zuten.



Berdintasun Batzordea sortu zuten

LEA-ARTIBAI // Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkarteak Berdintasun Batzordea sortu zuen. Burdinola, Cikautxo, Eika, Fagor Arrasate, Kide, Maier eta Laboral Kutxa euren berdintasun planak partekatzen hasi ziren, praktika onak eta ezagutzak elkar banatzeko.



Arrantza sektorea babesten eta laguntzen

ONDARROA // Iñigo Urkullu Lehendakariak Ondarroako portuko lonja berria bisitatu zuen martxoan, eta arrantza sektorea balioan jarri, eta laguntzen eta babesten jarraitzeko deia egin zuen: «Gure bizimodu eta kulturaren parte eta sektore estrategikoa da».

AGINAGA
argi-Indar

www.aiaginaga.com

- ▶ Eguzki panel fotovoltaikoak
- ▶ Instalazioak
- ▶ Etiketresna elektrikoak
- ▶ Telekomunikazioak
- ▶ Berriztagarriak

Artibai kalea, 30 MARKINA-XEMEIN
info@aiaginaga.com 94 616 77 20

ANAI TAS UNA

Ald. Zabarrin • ONDARROA

LIBRERÍA Y PAPELERÍA

ARALDE BERRI

San Kristobal plaza, 22
LEKEITIO • 94-603 42 16

ARRIZABALAGA
INMOBILIARIA

Juanjo Arrizabalaga
Guen kalea, 14 behea 94-616 84 34 MARKINA-XEMEIN

www.arrizabalaga.com



Eika kooperatibaren 50. urteurrena, familiarteko giroan

ETXEBARRIA// Eika kooperatibak herritarrekin ospatu zuen 50. urteurrena. Familia giroan, 700 lagunetik gora batu ziren ate irekien jardunaldian. Eikako langileen familia, lagun eta bizilagunek kooperatiba ezagutu eta bertako egunerokotasuna lehen eskutik ikusteko aukera izan zuten. Iñigo Arrieta presidenteak hurbildutakoiei eskerrak eman, eta 50 urteko ibilbidea maitasunez egin zutela esan zuen: «Urte guzti hauetan hasierako lantegi hura hazi eta eraldatu egin da, eta gure familia ere bai. Gure misioan idatzita daukagu proiektu sozioenpresarialaren bidez aberastasuna eta lanpostu jasangarriak sortzen ditugula gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat. Eta hori, lan eginda lortzen da».



Garapen ekonomikoa ardatz udal gobernuetan

LEA-ARTIBAI// Leartibai Fundazioak eskualdeko udal gobernu guztien ordezkariak batu zituen Markina-Xemeinen, eta Lea-Artibai-ko garapen ekonomikoari lotutako erronkak aurkeztu zituen Ainhua Arrizubieta Leartibai Fundazioko zuzendariak. Garapen eko-

nomikoa bultzatzeko lan lerroak zehaztu zizuten; besteren artean, eskualdeko industria traktorearen trantsizioa eta lehiakortasuna babestea eta arrantza industriaren eta itsasoaren bilakaera sustatzeko erabakia hartu zuten.

Markina-Xemeingo Udalaren Merkataritza Indartzeko Plan Berezia

MARKINA-XEMEIN// Markina-Xemeingo Udalak Merkataritza Indartzeko Plana prestatu zuen. Herriko ekonomiaren errealitatea aztertzeaz gain, etorkizuneko helburuak eta bide orriak zehaztu zituzten plan berezian.

Azaldu zutenez, sektorearen «eskaintza indartzea» bilatu zu-



ten, jendeari aukera komertzial «zabala eskainiz» bertan kontsumitu zezan, «herriari klima biziagoa eta erakargarriagoa emanez».

ANTZOMENDI

Eraiketak

Angel Asligarraga 

Antzomendi baserria
Mijoa auzoa 2
antzomendi@hotmail.com

670 214514
Faxa: 943 603764



AMOROTO

Auzoak

www.amoroto.eus
Elevalde auzoa, 1 • Amoroto
94-684 25 49



500
urte
eta



Lertxundiren 'Topaketa' eskultura, Bilboko ondare

BERRIATUA// Mikel Lertxundi eskultore berriatuarraren *Topaketa* eskultura erosi zuen Bilboko Udalak. Eskulturak lau urte zeramatzan Isozaki dorreen parean eta, auzo elkartearen eta hainbat gizarte eragileren eskariz, Bilboko Udalak eskultura erosi zuen.

Literatur Amuak jaialdia, euskarazko sortzaileen oholza

ONDARROA// Ondarroako Literatur Amuak jaialdia urriaren 20tik azaroaren 2ra bitartean egin zuten. Erakusketa, literatur solasaldiak, musika, bertsoak... eskaintza oparoa izan zen eta, besteak beste, Keu Agirretxea, Josu Arrizabalaga, Joseba Sarrionandia, Ane Etxegoien, Rafa Rueda eta Igor Elortza egon ziren. Karnele Mitxelenak eta Goio Ramosek irabazi zuten Augustin Zubikarai nobela beka saria.



'Irailekoak' poesia jardunaldia antolatu zuten lehenengoz

LEKEITIO// Euskal poeten lana gizarteratzea izan zen 'Irailekoak' jardunaldiaren helburu nagusia

Iraila agurtzeko, poesiari eskainitako asteburua antolatu zuten lehenengo adiz Euskaltzaindiak, Lekeitioko Udalarren laguntzagaz: *Irailekoak*. Udalerriko beste eragile batzuen laguntza ere eduki zuten,

tartean, Kitto merkatarien elkartearena, Sociedad Recreativarena eta Lekitto Musika Bandarena.

Poesiagintza indartu

Euskal poeten lana gizarteratzea izan zen estreinako egin dako jaialdi horren helburu nagusia, eta euskal zein atzerriko poeten hitzaldiak, irakurraldiak eta errezitalak eskaini zituzten.

Poesiagaz batera, beste arte



mota batzuk ere uztartu zituzten, musika eta artelanak, besteak beste. Antolatzaileek azpimarratu zuten herritarrek ondo erantzun zutela, giroa zein egitaraua «apartak» izan zirela eta, batez ere, helburua bete zutela: «Poesiagintza sustatu eta indartzeko helburua bete dugu». Halaber, *Irailekoak* jaialdia «ohiturazkoa» izatea espero zutela adierazi zuten: «Aurten, Lekeitio izan da; hurrengoetan, ikusiko da».

APALLU
ITURGINTZA

- ITURGINTZA
- BEROKUNTZA
- GASA
- AIRE EGOKITUA
- ENERGIA
- BERRIZTAGARRIAK
- DENETARIKO
- ZAHARBERRITZEAK

Fontaneria APALLU ITURGINTZA

San Agustin, 3 MUTRIKU
600 316 381 • 943 02 98 61
apallu@apallu.es / www.apallu.es



ASTIGARRAGA ANATAK S.L.U.
Larrutxa 1beak 28 beheak
20830 Mutriku
T. 943-60 42 85
WhatsApp: 661 72 17 28
astigarraga@astigarragaznakiak.com

Igeltzeritza, barne diseinua,
proiektuak 3Dn, sukaldeak,
gremioen koordinaketa.
Fatxada eta teilatuaren
eraberritze lanak...



'Hotsak soinu, soinuak doinu. 10 urtez, Musikaia'

LEKEITIO // 10. urteurrena ospatzeko, *Hotsak soinu, soinuak doinu. 10 urtez, Musikaia* lelopean, Lekeitioko musika eskolak 2023-2024 ikasturtearen hamar hilabeteetan hamar ekintza antolatu zituen. «Ikasturte berezia prestatu nahi izan dugu, normalean prestatzen ditugun ekintzez gain, bestelako ekintza bereziagoak antolatuta». Identitatea hartzeko hamar-kada izan zela esan zuten: «Hasierak ez dira inoiz errazak izaten, are gutxiago aurretik ezer ez dagoenean. Kultura eta ohitura hori falta zen Lekeition, inguruko herrietan musika eskolek historia luzeagoa baitute». Lehen urtean 80 ikasle eduki zituzten eta 2023an 410. «Azkenengo lauzpabost urteetan jende heldu askok» izena eman izana azpimarratu zuten.



Ohiko formatuan egin zen azken Marabilli Festibala

ONDARROA // Jaialdi formatuan egin zen azkenengo Marabilli Sormen Festibala «zorgarria eta ezin hobe» izan zen. Fermin Muguza, Arantza Santesteban, Joseba Sarriandia idazlea, Tapia eta Letuaria, Braulio eta Gailu taldeak, DJ Elepunto, Malandro...

sortzaile askok bat egin zuten hiru egunetan, Ondarroan. VI. Marabilli Sormen Festibaleko ekintzek «erabateko arrakasta» izan zuten. «Marabilli ez da amaitzen, festibala amaitzen bada ere, ekintzak egiten segituko dugu», esan zuten.

Antzerkiaz blai! bete zen Zabil Kultur Etxea, azaroan eta abenduan

MUTRIKU // Zazpi emanaldigaz osatu zuten Mutrikuko Udalak antolatutako *Antzerkiaz blai!* *Kanpora Sartzen*, *Ipurbeltz*, *Klase partikularrak etxean*, *Lapurreta museoan*, *Artista famili bat* eta *Lasaitasunaren hotela* antzezlanak eta *Tu Tum Platz* bakarriketa eskaini zituzten.

Nerea Ibarzabalen 'Jakelinen egunerokoa'



MARKINA-XEMEIN // Nerea Ibarzabal markina-xemeindarrak Higinia Garay ilustratzaileagaz *Jakelinen egunerokoa* album ilustratua aurkeztu zuen. Kimu ipuin-bildumaren baitan kaleratu zuen Ikaslekar hezkuntza-argitaletxeak. Bertso-lari eta idazlearen haur-erentzako lehen liburua izan zen; 2022ko irailean argitaratu zuen *Bar Gloria* bere lehen eleberria.

Artibai hagin klinika

MEDIKU-ODONTOLOGOA
INPLANTEAK
PADI + IMQ

Artibai, 6
MARKINA-XEMEIN
94 616 61 60



ATEUN

HARATEGIA-URDAITEGIA

etorri eta gozatu
gure baserriko okelaz
ZERBITZU PAREGABEA

Romulo Galdos, 12 · EBAR
943-20 61 94

Iparagirre 10 · ONDARROA
94 683 35 23 / 689 783 896

Artibai, 32 · MARKINA-XEMEIN
94 616 76 69 / 689 587 706



Ane Urrestik zilarra lortu zuen Munduko Sokatira Txapelketan

SOKATIRA//

Lur Gaineko Munduko Sokatirako Txapelketan Ane Urresti ondarrutarrak zilarrezko domina eskuratu zuen, Goiherri-Abadiño taldeagaz. Mutriku Sokatira Taldeak ere parte hartu zuen; bertako zazpi tiratzaile Euskal Selekzioa-gaz aritu ziren.



Agur beroa Unin, Andoni Aretxabaletari

ESKU PILOTA// Familia, lagun eta herritarren babesagaz, Andoni Aretxabaleta markina-xemeindarrak «nahi eta merezi» zuen agurreko omenaldia eduki zuen urtarrile-

an, Uni frontoian. Esku pilota eta zesta partiduez gain, dantzak, bertsoak eta opariak eskaini zizkioten. «Nire agurrean nire lagunak jokatzeari nahi nuen», esan zuen.



Lujaren eta Carrelen XI. Lea-Artibai Rallya

AUTOMOBILISMOA// Xabier Lujak eta Juan Carralek irabazi zuten XI. Lea-Artibaiko Rallya. Euskal Herriko Zirkuituko lehen proba horretan, Kastinparro Racingeko Gorka Antxustegi eta Xabat Urresti markina-xemeindarrak sailkatu ziren bigarren eta Iker Mintegia munitibartarra eta Ioritz Odiaga aulestiarra hirugarren.



Lea-Artibai Txallengea, hirugarren urtez

TXIRRINDULARITZA// Eskualdeko errepideak txirrindulariz bete zituen hirugarren urtez emakumezkoen Lea-Artibai Txallengeak. Hiru egunera eta hiru etapatarazabaldutuzten lasterketa, eta sailkapen orokorrean Paula Ostiz nagusitu zen gazteen mailan eta Doria Fomina nagusienean.



AUTOS BERRITXU **AUKERAKO KOTXEAK**

Tel. 94-613 99 90
Mug. 605 12 73 22
www.autosberritxu.com
ocasionberritxu@gmail.com
Erlibera auzoa, 13 behea
48710 BERRIATUA



BADIOLA BURDINDEGIA OPTIMUS

Artibai, 8 ONDARROA
94-683 22 07
leu2012@hotmail.es

ordutegia: 9:00-13:30/17:00-20:00



Zure konfiantzazko burdindegia



Ondarroa Arraun Elkartearen 50 urteko ibilbidea, irudietan

ARRAUNA // Ondarroa Arraun Elkarteak 50 urteko ibilbideari behar bezalako omenaldia egin, eta arrauna kalera ateraz, herritarrekin batera ospatzeko hamaika ekimen antolatu zituen. Esate baterako, *Arraun Ondarru* proiektua sortu, eta *Ogibidetik kirolera*, *arrauna Ondarroan* erakusketa eta dokumentala aurkeztu zituzten abenduan.

Lau zesta alokatzeko doako zerbitzua martxan ipini zuten

ZESTA-PUNTA // Guztiona dena guztion artean zaindu lelopean, Ispasterko Udalak herritarrentzat lau zesta doan alokatzeko zerbitzua eskaini zuen, herriko pilotalekuaren behealdean. Aritz Erkiaga puntista profesionalaren eta bere anaia Aitzolen zesta-punta eskolaren egitasmoagaz lotuta ernaldutako zerbitzua.



Lea Ibarra Motrollo, hamalau urtez pilota hauspotzen

ESKU PILOTA // 2009ko urtarrilaren 9an ipini zuten abian Lea Ibarra Motrollo Pilota Elkartearen ibilbidea, eta ekarpen handia egin zioten bai eskualdeko kirolari, bai eskualdeko kulturari. Sorreratik, herri txikiaketa kirola eta, zehazki, pilota hauspotzea eta ume-

en nahiz gazteen artean kirolagaz eta, bereziki, pilotagaz loturiko balioak zabaltzea izan du helburu. Umeei eta nerabeei euren herrian kirola egiteko zerbitzua ematen die. Munitibarren, Aulestin, Gizaburuagan, Ispasterren eta Mendexan entrenatzen dute.

Arbe eta Manzisidor, Pro-Am txapelketatik Winter Seriesera

ZESTA-PUNTA // Jokin Arbe markina-xemeindarrak eta Mikel Manzisidor mutrikuarrak Pro-Am txapelketa irabazi, eta Eusko Label Winter Series txapelketa jokatzeko txartela eskuratu zuten. Arbe bigarren aldiz aritu zen neguko txapelketan, eta, Manzisidor, aldiz, lehenengoz.

Ispasterko XC zirkuitua estreinatu zuten



TXIRRINDULARITZA // Ispasterko Udalak XC modalitateko zirkuitua estreinatu zuen, mendiko bizikletagaz ibiltzeko 4 km-ko ibilbidea. Irekiera egunean, 30 lagunetik gorak probatu zuten. Garbiñe Saenz de Buruaga Ispasterko alkateak proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen, eta herriak halako ekimen baten aurrean izandako borondatea azpimarratu zuen.

guk euskaraz beti!

Erakusleak gozatuak
EUSKARAZ EGITEA

euskaraz bizi nahi dut

www.aulesti.eus

AULESTIKO Udala

Donibane enparantza 1
AULESTI
ideazkaria@alesti.eus
94 627 9006



2027a bitarteko aginte makilak, banatuta

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU//
2027 bitarteko
udal eraketen
osoko bilkuretan
«herriari eskaini»
zizkieten makilak

Maiatzaren 28ko foru eta udal hauteskundearen ostean, aginte makila alderdiz aldatuz zen Markina-Xemeinen, Mendexan eta Lekeitio, EAJkoak izatetik EH Bildukoak izatera pasatuz. Luis Egurrolak Iratxe Lasari eman zion alkate makila Markina-Xemeinen, Pedro Zenigao-

naindiak Mari Jose Uriarteri Mendexan eta Koldo Goitiak Ander Aldazabali Lekeitio. Lehen herri bietan, aginte makila hartu zuten lehenengo emakumeak izan ziren. Lehen agintaldiari ekiteko hartu zuten alkate makila Ondarroan Urtza Alkortak (EH Bildu), Berriatuan Joseba Goienolak (EH Bildu), Ziortza-Bolibarren Andoni Larizek (EH Bildu), Aulestin Irati Urberuagak (EH Bildu) eta Amoroton Asier Arrizabalagak (Herri Kandidatura). Gizaburuagan Amaia Za-

balak bigarren agintaldia hasi zuen (Ibaibaso herri hautagaitza). Hirugarren agintaldia izan zuten, berriz, Ispasterren Garbiñe Saenz de Buruagak (EAJ), Munitibarren Arkaitz Goikoetxeak (EH Bildu) eta Mutriku Joseba Palenzuelak, eta laugarrena Jesus Iriondok (EAJ) Etxebarrian.

Ahaldun nagusiak

Bestalde, alderdi jeltzalearen eta alderdi sozialistaren akordioaren ostean, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldun-

dietan mugarri historikoa ezarri zen. Hain zuzen ere, lehenengoz, bi emakume izendatu zituzten ahaldun nagusi, Elixabete Etxanobe Bizkaian eta Eider Mendoza Gipuzkoan. Foru hauteskundeetan, EAJ izan zen alderdi bozkatuena Bizkaian eta EH Bildu Gipuzkoan. Lea-Artibain eta Mutriku udal zein foru hauteskundeetan EH Bilduk lortu zuen botoen gehiengoa. Udal hauteskundeetan 8.108 boto eduki zituen (2019an baino 95 gehiago) eta EAJk 6.568 (2019an baino 1.323 gutxiago). Foru hauteskundeetan koalizio abertzalea 8.122 botogaz nagusitu zen (2019an baino 183 gutxiago). Jeltzaleek 6.552 boto lortu zituzten (2019an baino 1.299 gutxiago).

Argazki galeria:



Egunsentia
DASTATEGIA

94-684 29 25
LEKEITIO

Atea kalea 28 (Ikastolaren parean)

Joseba Iñaki
Eleizgarai
Masajista
Osteopata

Konte kalea, 22
Mutriku 630 788 059

BELAZAHAR

- Zure maskotarentzat behar duzun guztia
- Albaitari kontsulta

94 684 06 71 • belazahar@yahoo.es
SANTA KATALINA IBILBIDEA • LEKEITIO

Biztanleak

31.248

■ **Lea-Artibai eta Mutrikun.**
Biztanle zeuden erroldatuta 2023ko azaroaren 30era arte. Gehiago ziren hil zirenak jaio zirenak baino: 142 lagun jaio ziren eta 264 hil.

Langabetuak

1.069

■ **Lea-Artibai eta Mutriku.**
2023eko urrira arte, Lea-Artibai eta Mutrikuko langabetu kopurua. 2022an baino 79 gutxiago.

■ **Herri handienetan.**
Ondarroan, 336 langabe; Lekeitio, 215; Markina-Xemeinen, 179 eta Mutrikun, 192. Ehunekotan, Ondarroan daude langabetu gehien, %8,55; eta Ziortza-Bolibarren gutxien, %4,99.

■ **Langabeziaren bilakaera.**
2015ean, 1.523 langabetu zeuden; 2016an, 1.312; 2017an, 1.190, 2018an, 1.243, 2019an, 1.141, 2020an, 1.509 eta 2021ean, 1.217 eta 2022an, 1.148.



■ HERRIZ HERRI. AZAROAREN 30ERA ARTE

HERRIAK	Jaiotzak	Heriotzak	Errolda
Amoroto	2	5	398
Aulesti	0	7	646
Berriatua	7	6	1.255
Etxebarria	6	11	774
Gizaburuaga	0	2	205
Ispaster	2	7	738
Lekeitio	26	48	7.223
Markina-Xemein	25	43	5.113
Mendexa	3	3	434
Munitibar	1	5	479
Mutriku	28	47	5.315
Ondarroa	39	77	8.261
Ziortza-Bolibar	3	3	407
GUZTIRA	142	264	31.248

AZKUE
LEKEITIOKO IKASTOLA
NATURA IKASTOLA GARA

94 684 0959
lekeitio@ikastola.eus
www.lekeitioikastola.eus



LEA-ARTIBAIIKO IKASTOLAK,
ETORKIZ UNERANTZ HEZTEN



Zubi Zahar
Herri Ikastola



94 683 1416
ondarroa@zubizahar.eus
www.zubizahar.eus



Ekintzailetza • Industria
Merkataritza • Talentua
Turismoa eta ostalaritza

🌐 www.leartibaifundazioa.eus

☎ 94 616 91 72

✉ kaixo@leartibaifundazioa.eus



Xemein Etorbidea, 12-A | Lea-Artibai Berrikuntza Gunea | Markina-Xemein (Bizkaia)

HITZAK 20 URTE

elkarrekin
euskaraz
hauspotuz



LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZAREN 20. URTEURRENA ETA ERRIGORAREN 10. URTEURRENA OSPATZEKO JAIALDIA EGIN ZUTEN AZAROAREN 11n, LEKEITION. BI HAMARKADAKO IBILBIDE OPAROAREN OSTEAN, AURRERA BEGIRA ERE, HITZAK HERRI ETA ERAGILEEN BABESAGAZ KOMUNIKAZIO PROIEKTU ERREFERENTE IZATEN JARRAITU NAHI ZUELA AZPIMARRATU ZUTEN, EUSKARAZ, EUSKARATIK ETA EUSKARAGATIK. EUSKAL PRENTSA BENETAN SOSTENGATUKO ZUTEN POLITIKA AKTIBOAK, ERAGINKORRAK ETA IRAUNKORRAK ESKATU ZITUZTEN.



ATAL
BEREZIA:

argazkiak,
elkarrizketak,
albisteak...



eskerrik asko!

ERAGILE ETA LAGUNTZAILE GUZTIOI

Bizkaibuseko langileek lanuzteak gehitu zituzten

LEA-ARTIBAI//

Busturia Lea Artibai (BLB) Bizkaibuseko langileek lanuzte gehiago iragarri zituzten. 31 eguneko lanuzte partzialak finkatu zituzten urteko lehenengo hiruhilekorako, eta baita 24 orduko bi greba egun eta hainbat elkarretaratze ere. Bizkaibuseko bost emakidatunetatik lau lanuzteak, grebak eta mobilizazioak deitu zituzten.

UGTk salatutakoaren arabera, 2020ko abendutik eguneratu barik zeukaten hitzarmena, eta langileek KPIaren arabera soldata igoera jasotzen zuen hitzarmen kolektibo berri bat eskatzen zuten; izan ere, gogoratu zutenez, «Avanza Durangaldean 2021eko KPIaren (% 6,4) arabera soldata igoerak zituen hitzarmena lortu zuten».

Oscar Lopez batzordeko presidentek ohartarazi zuen negoziaketa «zaila» izaten ari zela, eta horrek guztiak «gatazka denbora luzez luzatuko» zuela. Gainera, UGTo ordezkariak osatutako Enpresa Batzordeak adierazi zuen gatazkari irtenbidea eman ezean «ez zela bake sozialik egongo».

Boga Boga Ondarroako emakumeen arnasmune

ONDARROA //

Boga Boga Ondarroako Emakumion Elkarateak 40 urte bete zituen.

Ondarroako Boga Boga Emakumion Elkarateak 40 urteko ibilbidea bete zuen. Taldearen hastapenetan emakumearen ahalduztzearen ideiatik abiatutako proiektua izan zen, eta emakumeak elkarrekin josteko, egoteko eta euskaraz ikasteko batzen ziren. Urteak aurrera egin ahala, bilakaera izan eta

eraldatuz joan zen. 2023. urtean elkarate «bizirik eta aktibo» mantendu zen, eta feminismoaren perspektiba ezberdinak ukitzen zituen gaien inguruko saioak aurrera eramaten zituzten, hala nola, hitzaldiak, zinema, dinamikak, jabekuntza eskolak eta mahai inguruak. «Boga boga arnasmune da; begiak ireki, gauza ezberdinak entzun eta ikuspuntu ezberdinak ezagutu. Aberastasuna. Sare bat zabaltzen da eta abanikoa zabaltzen da. Norbere burua ezagutzea, autogutzea. Begiak ireki eta ikasi. Gizartean parte hartzea».





HONDALANAK
ETXEGINTZA
BERRIKUNTZAK

EGIGUREN ERAIKUNTZAK S.L.

Loiolako Iñaki deuna kalea, 6-behea
LEKEITIO • tel./faxa: 94-684 00 10
egigurensl@gmail.com



ERABIL

KARTOI KUTXAK

Zulueta auzoa z/g • AMOROTO

Tel.: 94 684 40 02
Faxa: 94 684 41 47
comercial@erabil.es





Mutrikuko babes dikeko obrak.

Mutrikuko dikea luzatzeko obren legezkotasuna, Europara

MUTRIKU //
Mutriku Natur Taldearen eskaera Europako Parlamentura iritsi zen

Mutrikuko babes dikea 440 metroraino luzatzeko Eusko Jaurlaritzak egindako proiektuak hirigintza eta ingurumen araudiak urratzen zituela esan zuen Mu-

triku Natur Taldeak. Eta lege urraketa horren aurrean, plataforma ekologistak Europako Parlamentuko eskaera batzordeari proiektu horren legezkotasuna berrikusteko eskatu zion. Europako Parlamentuak eskaera onartu eta proiektuaren legezkotasuna aztertuko zuela adierazi zuen. Natur taldekoek zioten argi zeukatela Eusko Jaurlari-

tzak kirol portu bat egin nahi zuela, eta azpimarratu zuten dikea luzatzeko obrak ez zetozeela bat 2001ean egindako proiektuarekin. «Gutxienez legea betetzeko borrokatuko» zutela esan zuten. Halaber, gogorarazi zuten 2005ean dikea eraiki zutenean Mutrikuk «natur ondarearen zati garrantzitsu bat galdu zuela».

Ispastertarrak, energia komunitatea sortzeko bidean

ISPASTER //

2022.urte amaieran Ispasterko Udalak eta bizilagunek elkarlanari ekin zioten, herrian komunitate energetikoa sortzeko bidean; 2023aren hasieragaz, prozesuagaz aurrera jarraitu zuten. Komunitate horren nondik norakoak zehazten eta bere egitura gorpuzten hasi ziren.

Ispasterko alkate Garbiñe Saenz de Buruagaren berbetan, «egitasmoak energia jasangarritasuna, herritarren parte-hartzea eta ardura ekologikoa uztartzen zituen». Udalerriko bizilagunek erakutsitako «konpromisoagaz eta jarreragaz oso asebeteta» zeudela azpimarratu zuen.

Kooperatiba formatua

Energia komunitateak kooperatiba bezala funtzionatuko zutela azaldu zuen alkateak: «Komunitatea antolatze hainbat era daude, eta guk horixe ikusten dugu geure egoerara moldagarrien; hortaz, aurrerantzean zehaztu egin beharko dugu bazkide bakoitzak zein eginbehar edukiko dituen, kuotak zein kopuruta-koak izango diren, eta beste-lako xehetasunak».

2024 URTE ON
bat opa dautsuegu!



Berritxu
artibai bihotzean

Tel. 94 613 70 30 / Faxa. 94 613 70 27

www.berriatua.org



Mediku zerbitzua berreskuratzea lortu zuten

Amoroto eta Mendexa udalerriei mediku zerbitzua berrezarri zieten. Albistea begi onez hartu arren, «oso berandu» iritsi zela adierazi zuten

AMOROTO-MENDEXA//

Bi urte baino gehiagoko eska-kizunen eta borrokaren ostean, Amoroton eta Mendexan mediku zerbitzua berreskuratzen zuten. Martitzenetan eta barikuetan, Mendexan egotea, eta astelehenetan, eguaztenetan eta eguenetan, berriz, Amoroton egotea lortu zuten.

Denbora horretan guztian, erizain baten zerbitzua baino ez zuten eduki, eta ez medikuarena. Horrek, bi udaletatik argitu zutenaren arabera, «atzerapen eta traba pila bat» ekarri zituen hainbat esparrutan; besteak beste, itxaronaldi luzeak, zuzeneko arretarik eza, espezialistagaz kontaktatzeko zailtasunak edota diagnostikoak zehazteko arazoak nabarmendu zituzten.

Albistea begi onez hartu bazuten ere, «oso berandu» iritsi zela adierazi zuten.

Mediku zerbitzua udalerridenean, edozein tamainatakoak izanda ere, «eskuragarri eduki behar luketen oinarriko zerbitzua» zela gogoratu zuen Pedro Zenigaonaindia Mendexako alkateak. Amorotoko alkate Ibon Gabiolak azaldu zuen mediku zerbitzua galdu zutenetik «goiko agintariekin borrokan» ibili zirela: «Sasoi beltza izan da; txarto pasatu dugu, ez genuen argi ikusten lehengo egoerara itzuli ahalko ginenik. Zentzu horretan, erabakia berandu heldu da». Hiriburutik urrun zeuden eremuetan «oinarriko osasun zerbitzuak bermatzea gero eta gaitzagoa zela» esan zuen.



Antsotegi Hotelaren saria, Rusticaen

ETXEBARRIA// Rusticaeren sarietan Publikoaren Saria jaso zuen Antsotegi Hotelak. Euskal Herri mailan sari hori jaso zuen lehendabiziko hotela izan zen, eta bertako arduradunen esanetan, irabazi zutena «sari zailena» izan zen, eta «prestigioa» ematen ziela gaineratu zuten.



II. Neguko Bolak txapelketako saridunak

MARKINA-XEMEIN// Markina-Xemeingo MX3T taldeak antolatutako II. Neguko Bolak txapelketa Pedro Gomez ermuarrak irabazi zuen. Barinaga bolatokian jokatu zen azken jardunaldia, San Anton jaian baita; 51 parte hartzaile egon ziren.

GOZOTEGIA
Errota
Antiguako Ama, 5
94 683 01 29
ONDARROA

ESKUTUR
ITURGINTZA
Rikardo Juaristi
Tfnoa: 629 144 352
Xabier Aranzadi
Tfnoa: 685 758 314
Ibarberrri, 9 behean
48700 ONDARROA • Bizkaia
Tfnoa: 94 683 33 37

ESKUONAK
AUTOKONPONKETAK

Confortauto
espezialistak
pneumatiko,
mekanika,
txapa eta
pinturan.

- Mekanika orokorra
- Txapa eta pintura
- Auto garbiketa
- Zure autoa nahi duzun tokian hartzen eta uzten dugu.

Pol. Gardotza, 9 • **BERRIATUA**
Tf: 946 833 359 - 679 631 384
Emaila: eskuonak@gmail.com

GOODYEAR **HANKOOK**
WHEELS **INTERSTOPS**
CONFORTAUTO.COM



Pentsiodunen borroka 5 urte bete zituen

LEA-ARTIBAI// 5 urte bete zituen pentsiodunen borroka. Astelehenero kalera atera ziren pentsio publikoak, duinak eta bidezkoak izateko eskubidearen alde. Aberastasu-

naren banaketa bidezkoaren aldeko borroka egiteaz harro, soldaten eta pentsioen eros- teko ahalmena berreskuratzeko eskaeragaz segituko zutela aldarrikatu zuten.



Oihana Kortazar kirolaria: maila handiko gidari eta eredu

MUTRIKU// Oihana Kortazarrek emakumeei zuzendutako 19 km-ko mendi korrikaldia gidatu zuen. Domusa Teknik 40 MLK probaren bost saioetatik hirugarrena izan zen.



Sei ondarrutarrek lortu zuten mendi erronka betetzea

ONDARROA// Ondarroako Udalak Aurrera Mendi Taldeagaz 2022aren hasieran abiarazitako mendi erronkak erantzun ona eduki zuen; sei herritarrek bete zuten erronka.

Aldundia «mendiak eraldatzeko» prozesuagaz hasi zen

LEA-ARTIBAI// Bizkaiko Foru Aldundiak mendiak eraldatzeko prozesuari ekin zion, eta 2021ean eta 2022an 21 lurralde erosi zituen hamalau udalerritan, eta tartean zeuden Etxebarri, Munitibar eta Markina-Xemein. Guztira 50,90 hektarea erosteko 3,2 milioi euroko inbertitsioa egin zuten.

Aldundiak partikularrei mendiko lursailak erosi zituzkien, ondoren espezie autoktonoekin birlandatzeko. Helburu bera mantentzen zutela argitu zuten: «Baso autoktonoak hartzen duen baso-azalera handitzea, natura-gune horien kontserbazioaren eta basogintza-sektorearen jardura ekonomikoaren garrantziaren arteko oreka modu jasangarrian lortzeko».

Lursailen ezaugarrietarako egokia zen baso autoktonoa birsortzea zuten helburu; lizarrak, gereziandoak, endrinoak, urkiak, gaztainondoak, pagoak eta elorri zuriak landatu zituzten. Azaldu zutenenez, lursail gehienetan beharrezkoa izan zen landatutako zuhaitzak moztea eta erauztea, eta baita lurra egokitzea ere, ondoren landaketak egin ahal izateko.

LEA-ARTIBAI eta MUTRIKUN

Kalitatezko Euskal Irakaskuntza Publikoa



Ondarroako Institutua



Markina-Xemeingo Ikobenta Eskola Publikoa



Markina-BHI



Mutriku Institutua



Goienko Izarra Ikastola



Lekotikoko Eskola Publikoa



Lekotikoko Institutua



Amorotoko Eskola



Urregerai Aulestiko Eskola



Berriakoko HLHI



Munitibarko Eskola



Maseda Zubizarreta HL Etxebarria



Ispasterko Eskola

Konpost txapeldunen bila, erronka lortzeko

LEA-ARTIBAI// «Hondakin organikoen birziklapenean aurrerapausoak ematen jarraitzeko», Lea Artibai Amankomunazgoak *Konpost txapeldunak* kanpaina jarri zuen martxan. Arduradunek esan bezala, 2023an organikoaren bilketa %10 handitzea izan zen erronka. Zehatz esateko, urte amaieran 950 tonatara iristearen erronka ezarri zuten, eta, esate baterako, maiztzairen 15era arte 307,64 tona batu zituzten. Hain zuzen ere, helburua zen 2020. urteko datuak berreskuratzea, 1.005 tona inguru.



Arrietaren gorpuzkinak jaso zituzten senideek

MARKINA-XEMEIN// Arantzadi Zientzia Elkartek identifikatu ostean, Jose Martin Arrieta Ikarant gudari markina-xemeindarren gorpuzkinak jaso zituzten senideek

otsailaren 11n eta martxoan omendu zuten. Gerrako lagunekin hobiratu zuten, Elgoibarraren, eta azken agurra eskaini zioten, Ahaztuen Oroimena Elkartegaz elkarlanean.



9.000 euro, Aspanovas elkartearentzat

BERRIATUA// Helmugak proiektuko kideek 2022ko ekintza solidarioetan bildutakoa eman zioten Aspanovas Bizkaiko minbizidun haur eta nerabeen gurasoen elkarteari. 9.000 euro jaso zituzten Aspanovaseko ordezkariak.



Sololuze eta Beltran omendu zituzten

MARKINA-XEMEIN// Otsailaren 6an hiru urte bete ziren Zaldibarko Eitzagako zabortegia hondatu zenetik, eta bezperan, Alberto Sololuze Markina-Xemeingo bizilaguna eta Joaquín Beltran Zallakoa omendu zituzten, Eitzaga auzoan.



lorakesther
94-683 09 60
lorakesther.com
Artabide, 24 ONDARROA



Gautaguneko Zerbitzua

**LEA ARTIBAI
FYNERARIA**

MARKINA-XEMEIN
94-616 62 12
ONDARROA
94-683 09 60
659 87 92 68

Tanatorioa,
Gardotzako
industrialdean



AZPITARTE autoak

Okamika Industriagunea, II pabilioia 1A4. • GIZABURUAGA
688 62 92 84 / 94 624 38 60 azpitarteautoak@gmail.com

- Zerbitzu azkarra!
- Berrikuspenak
- Matxura elektrikoak eta elektronikoak
- Mekanika



TXEBARRIA
lektrizitatea
electricidad

699 852 246
ula.etebe@gmail.com

INSTALAZIOAK OROKORREAN /
MANTENIMENDU LANAK /
ATEZAIN AUTOMATIKOAK /

48289 Lekaitio - BIZKAIA



Energia Plan Integratua udal aretoan aurkeztu zuten.

Munitibarko Udalak Energia Plan Integratua plazaratu zuen

MUNITIBAR//
Jaurlaritzagaz eta Barrizar enpresagaz elkarlanean osatu zuen plana udalak

Eusko Jaurlaritzagaz eta Barrizar aholkularitza energetikorako enpresagaz elkarlanean, Munitibarko Udalak Energia Plan Estrategikoa landu eta plazaratu

zuen. 20 urteko ibilbidea edukitzea aurreikusi zuten, eta udalerrian jasangarritasuna modu efizientean jarraitzeko hainbat neurri jaso zituzten bertan. Hauek izan ziren planaren ardatz nagusiak: Energiaren erabilera eraginkorragoa egitea, isuriak murriztea eta energia berriztagarrien bidezko sorkuntza-banatua handitzea. Hala, Muniti-

barko kontsumoaren inbentarioa egin zuten, udalerriak bere osotasunean sortzen duen isuri kopurua zehazteko, eta besteren artean, klima aldaketak sortzen dituen ekintzak arintzeko estrategiak barnebildu zituzten: isuriak arintzea eta berotegi efektuak sorrazitako aldaketara modu jasangarrian egokitzea.

Energiagaz lotutako zalantzak argitzeko zerbitzua, udaletxean

ISPASTER// Energiagaz lotutako zalantzak argitzeko zerbitzua sortu zuen Ispasterko Udalak. Astelehenetik barikura eskaini zuten udaletxean. «Energiaren Euskal Erakundeak eta Lanbidek elkarlanean atera zuten udalek tokiko administrazioan klima aldaketako eta energia trantsizio teknikiariak kontratazeko aukera. Urtebetez ariko da zerbitzua ematen», azaldu zuen Garbiñe Saenz de Burua- ga alkateak.

Autobus geltoki berriaren azterlanak ezezkoa jaso zuen

MARKINA-XEMEIN// Markina-Xemeingo autobus geltoki berriaren azterlanak herritarren ezezkoa jaso zuen. Atxondo kiroldegi alboan kokatzeko azterlan bat gauzatu zuen udalak, beste eragile batzuekin elkarlanean, eta ondorio nagusiak bildu zituzten. 226 erantzun jaso zituen udalak, horietako 181 aurkakoak izan ziren. Horrez gain, ideien kontrako bi sinadura bilketa ere aurkeztu zituzten udalean. Proposamen guztiak aztertuko zituztela esan zuten udal ordezkariak.



Gurean badaukazu

www.etxebarria.biz



Etxebarria
udala

Peñanekua Plaza, 1
94-616 64 32



Oihana Kortazar, Espainiako txapeldun

MUTRIKU// Oihana Kortazarrek Espainiako Trail Running Maratoi Txapelketa bereganatu zuen. 40 km eta 2.380 m-ko desnibeleko ibilbide teknikoa 4:12:07ko denboran osatu zuen, urrea bereganatuz. Lasterketa «gogorra» izan zela adierazi zuen: «Gorabehera asko zituen, eta nahikoa arriskutsua zen».



Balarazio «ezin positiboagoa»

LEKEITIO// Lekittoko Deabruek 10. urteurrenaren balarazio «ezin positiboagoa» egin zuten, eta taldearen ibilbidea aztertzen duen *Mingorri, Lekittoko Deabruek 10. urteko sugarra* dokumentala ikusgarri jarri zuten.

Zaintzari buruzko diagnostikoa egin zuen udalak

Zaintza lanen gainkarga emakumeengan zegoela berretsi zuen azterketak, eta baita ere gainkarga hori «gero eta gehiago emakume etorkinen gain zegoela»

MARKINA-XEMEINGO// Markina-Xemeingo I. Berdintasun Planaren ildoak jarraituz, zaintzen eta bateragarritasunaren inguruko diagnosia gauzatu zuen udalak. Jakinarazi zutenez, herritar gutxik parte hartu zuten inkesta erantzuten, eta erantzun zuten gehienak emakumeak izan ziren: «Horrek adierazten du gaiarekiko interesa eta motibazioak emakumeengan egoten jarraitzen duela. Gizonak zaintzaile bezala ikusteko erresistentziak ageri dira. Emakumeek zaintza erantzukizunak lehenesten dituzte beste gauza batzuen gainetik».

Zaintzaile pribatu ugari migrazio prozesuak bizitakoak direla argitu zuten. Horiek gehienbat etxeetan egiten zuten lan, eta aisialdirako edo formakuntzak egiteko eta hiz-

kuntzak ikasteko «aukera murriztak» zituztela ondorioztatu zuten diagnostikoan. Zaintza partekatzerakoan sare erabiltzen zela azaldu zuten, familia, lagun sare (zaintzailearena zein zainduarena); herria bera ere zaintza sarearen parte bilakatzeko dela esan zuten.

Ondorioak atera ostean, arazoak identifikatu eta haiei aurre egin nahi izan zieten. Zaintza politika «lan instituzionalen erdigunean kokatu» nahi zutela azpimarratu zuten: «Zaintza lanen gainkarga emakumeengan dago, eta gero eta gehiago migrazio prozesuak egin dituzten emakumeengan. Markina-Xemeingo Udalak gainkarga hori murriztu nahi du eta haien lana balioan jarri eta aldarrikatu».

EZENARRO NOZTEDEI

Galartza, industrialdia z/g. ETXEBARRIA
Tel: 94-616 75 00 - ezenarro@ezenarro.com

www.fideslan.com

Fideslan

Negoio kontsultoria eta aholkularitza

Antiguako Ama, 11
ONDARROA • Tel.: 94-683 32 08
DONOSTIA • Tel.: 943-429 609
fideslan@fideslan.com



Isuntza Arraun Elkarteak egoitzako irudia aldatu zuen

LEKEITIO// Isuntza Arraun Elkarteak egoitzako irudia aldatu zuen. Argazkietatik marrazkiak egin zituzten: estropadetako une desberdinetako argazkiak eta Lekeitioko he-

riaren parajeren batena. Martin Bilbao, Juan Daniel Ruiz *Mimi* eta Kepa Altube *Kopi* aritu ziren margotzen, eta haiei «oso eskertuta» agertu ziren Isuntzako kideak.



Berrikuntza eta hazkundea

BERRIATUA// Kidek Berrikuntza eta Hazkunde Proiektu Onenaren saria jaso zuen ON Bizkaia sariketan. Kide Taldeko arduradunek kooperatiba osatzen duten langile guztiak zoriondu zituzten.



Munduko hirugarren onena

ONDARROA// Lian muralgilearen Kamiñaz-piko lana munduko hirugarren onena zela aitortu zuen Street Art Cities atariak. Lana «denena» zenez, saria ere denena zela esan zuen artistak.

Zamburiñaren bideragarritasuna aztertu zuen Aztik

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Azti zentro zientifiko eta teknologikoko ikerlari talde batek zamburiñaren bideragarritasuna aztertu zuen Mutriku eta Lekeitio artean. Mendexako kostaldetik bi miliatara kokatutako tretzan eta Mutrikuko portuko urmaelean hazkuntza metodologia ezberdina erabili zuten, emaitzak alderatzeko asmoz. Errentagarritasun ekonomikoa bideragarria izateko heriotza-tasa jaitsi beharko litzatekeela esan zuten.

2023ko Ibilaldiaren 'Turrin hotsa' abestia aurkeztu zuten

ONDARROA// Leire Bilbao idazle ondarrutarraren letrarekin eta Aiora Renterriaren eta Eñaut Elorrietaren aholkuekin, Axular Arizmendi musikari eta ekoizle mutrikuarrek sortutako Ibilaldiaren *Turrin hotsa* abestia aurkeztu zuten. Bideoklipa, oster, Aiora Ponce ikus-entzunezko sortzaile ondarrutarrak sortu zuen, eta Nerea Gartzia eta Unai Guenaga ondarrutarrak izan zituen lankide.





Aldarrikapen feministak lau haizetara zabaltzeko hitzordua

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU // Martxoaren 8an, tokian tokiko udal zein taldeen deialdiekin bat eginez, aldarrikapen feministak lau haizetara zabaltzeko askotariko ekintzak egin ziren he-

rriz herri. Zaintza iraultzeko aldarria kalera atera zuten talde feministek, eta Emakundek emakumeek lidergo postuetara heltzeko zituzten oztopoak azaleratu zituen.



Greba feminista orokor baterako lehenengo urratsa eman zuten

LEA ARTIBAI ETA MUTRIKU // Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba orokor baterako prozesua abiatu zuen. Zaintza eskubide unibertsaria-

len alde, Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba orokor batera deitzeko prozesu bat abiatuko zuela iragarri zuen Martxoaren 8an: «Zaintzarako eskubide unibertsala exijitzen dugu, eta zaintza horiek negozio izatea-

ri uztea. Horregatik, greba feminista orokor baterantz goaz, eta gaur, martxoaren 8a da lehen urratsa». Ez zuten greba orokorrerako egunik zehaztu, baina M8tik kanpo egingo zutela esan zuten. Halaber, mugimendu feminista-

koek gogoratu zuten feminismoak aspaldi azaleratu zuela zaintza lanen merkantilizazioa eta pribatizazioa. «Zaintzari zentraltasuna ukatu bazaio ere, kapitalismo patriarkala horretaz aberastu zela» nabarmendu zuten.

GOITIKO
JATETXEA
KAFETEGIA

Foru Enparantza, z/g • LEKEITIO
94 684 31 03

GOIXARRI S.L.
ERREFORMA LANAK

goixarri@gmail.com

630 273 414
615 750 960

Mutriku

GOIZMEK, S.L.

MEKANIZATUAK

Tf. / Faxes: **94 684 1413**
goizmek@goizmek.com

okamika industrialdea, 3A • GIZABURUAGA



Lan baldintzak duintzeko neurriak, Arrantza Legean

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Saregile, neskatila eta paketatzaileen lan baldintzak duintzeko eta diskriminazioa amaitzeko neurriak jaso zituen Arrantza Legea onartu zu-

ten Espainiako Senatuan. Besteak beste, lau urte lehenago erretiroa hartzea ahalbidetu zien. Ondarroako emakumeek «egun historikoa» zela nabarmendu zuten Madrilén.



Etxelilaren 10. urteurrena ospatzen

ONDARROA// Egun osoko egitarauagaz, Etxelilaren hamargarren urteurren jaia ospatu zuten. Bisit Beiroren lana eta indarra balioan jarritz, omenaldi xume eta beroa eskaini zioten, eta xafla bat ezarri zuten Etxelilako goiko solairuan.



Bigarren talde handiena, Lilatoian

ONDARROA// Lilatoiaren 33. edizioan Etxelila Aringangan taldeko 114 korrikalarik parte hartu zuten, bigarren talde jendetsuenaren saria eskuratuz. Inoizko parte hartze daturik handiena izan zuen Lilatoiak: 6.000 emakume.

Dentici pabiloiaren inguruko aparkaleku eta urbanizazio lanak

MUTRIKU// Mutrikuko Udalak Txurruka Tenienteak etorbidetako Dentici pabiloiaren inguruko aparkaleku eta urbanizazio obrak gauzatzeko lanak hasi zituen. Bestalde, Galdona auzorako bidearen konponketa lanei ere ekin zieten.





ibane

HARME DISEINUA

ERREFORMAK, ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

ZEAR KAIEA, 5-48270 MARONIA-XEMEIN
94 616 63 26 - 676 972 034
ibone@ibone.es
www.ibone.es

Etxean egindako opilak

HAIZEA KAFETEGIA

Paskual Abaroa 22 behe, 48280 LEKEITIO

IV ML METAL LANAK

IBAN VIDAL SL

INDUSTRIA eta ITSAS-MEKANIKA GALDARAGINTZA

94 683 18 51 ☎ 609 95 15 83
metal-lanak@ibanvidal.com



Ispasterko eskolaren eraberritzea bidean, elkarlanean

ISPASTER// Ispasterko Udala, Ispasterko Guraso Elkartea eta herriko eskola komunitatea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailagaz elkarlanean aritu ziren, eskolaren eraberritze lanen proiektua garatzeko. Proiektuan jasotzen zenez, «eraikina goitik behera eraitsiko zuten, berria eraikitzeko»; horregaz batera, jolasgune bat egitea ere aurreikusten zuten. Lan horiek egiteko, eskola alboko orubea baliatuko zutela azaldu zuen Garbiñe Saenz de Buruaga alkateak. Obrak 2024/2025 ikasturtean abiatzea aurreikusi zuten. Zehaztutakoaren arabera, «jasangarritasunaren aldeko hautua» egin zuten. Materialak «0 kilometrokoak» izatea lehenetsi zuten, baita «eskola autonomia» izatea ere. Epe luzeko proiektua izanda, urratsez urrats lan egiten jarraituko zutela argitu zuten, alderdi guztien ekarpenak jasota.



Bolintxu energia komunitatea sortu zuten

ZIORTZA-BOLIBAR// Bolintxu energia komunitatea eratu zuten Ziortza-Bolibarren. Kooperatiba izaeradun egitasmoa 35 bazkidegaz sortu zuten, baina aurrera begira, proiektuak egin ahala, bazkide gehiago sartzeko aukera egongo zela azpimarratu zuten. Udalak bultzatuta sortu zuten; udala bazkide laguntzaile legez sartu zen kooperatiban.



Kluben arteko txapelak, Berriatura

BERRIATURA// Berriatura nagusitu zen klub arteko Euskal Herriko zesta txapelketan. Markina-Xemeingo Uni Frontoiak hartu zituen gazteen txapelketako finalak eta Zumaia nagusia. Ohorezko mailan, berriz, Mutriku nagusitu zen.

Markina-Xemeingo HAPO onartu zuen aldundiak

MARKINA-XEMEIN// Hama-zazpi urteren ostean, Markina-Xemeingo Herri Antolamendurako Plan Orokorra onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Luis Egurrola alkateak esan zuenez, «zaharkituta zegoen dokumentua zen eta beharrezkoa zen momentuko beharrezkari erantzunak emateko eta errealitateari egokitzeko». Zuzenketa asko egin behar izan zituztela zehaztu zuten.

Ahaztuen Oroimenak Elkartearen Memoria Ibilbideak

MARKINA-XEMEIN// Etxebarriko eta Berriatuko ostean, Markina-Xemeingo Memoria Ibilbideak aurkeztu zituzten. Ahaztuen Oroimena Elkartea egin zituen Etxebarriko, Berriatuko eta Markina-Xemeingo Udalen ekimenez, eta Gogorak (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua) babestuta: «Gure inguruko herrietan kokatutako frontea sektore ezberdinetan antolatu zen, eta sektore edo zati hauetako zenbait gertakari bildu nahi izan ditugu, Memoria Ibilbide hauen baitan».

Diseinu eta Komunikazioa
AULESTI S.L. Ibegrafik

Diseinua - Komunikazioa - Inprimaketa

94 627 92 94 / 902 423 718
diseinu@ibegrafik.com
administracio@ibegrafik.com

www.diseinuetakomunikazioa.es

ida estetika

MEDIKUNTZA ESTETIKOA 364/5
DENDA ONLINE
www.estetikaidaga.com

idaga enpresa

sabin arana. 7 behea
/ ONDARROA

94 683 08 38
687 80 24 82
info@estetikaidaga.com

IBARPLAS
LEIHOAK

943-19 92 26 • ibarplas@ibarplas.com
www.ibarplas.com

Industrialdea kalea, C partz., 5. nabea • ITZIAR



Delikuentzia kasuen kontrako mobilizazioa

MUTRIKU// *Delinkuentziarik ez dugu nahi* lelopean, manifestazioa egin zuten Mutrikun. Hainbat etxebizitzetan egindako lapurreten, erasoen eta legez kanpoko beste zenbait ger-

takarren kontra agertu ziren ehunka herritar, eta «baketsua ez denak Mutrikun ez daukala tokirik» adierazi zuen Joseba Palenzuela alkateak.



Tanzanian ilusio berriak pizten

LEKEITIO// Ekhi Aboitziz lekeitiarrak eta Itziar Zabala dimoztarrak Tanzaniako oporraldia ekintza sozial bilakatu zuten. Climbing for a Reason fundazioagaz, Musoma herriko umeei laguntzen aritu ziren.



Euskal JaXE, IbilaldiXE aurretik

ONDARROA// Zubi Zahar herri ikastolak antolatutako Euskal JaXE herriko eta inguruko herrietako 300 dantzari, txistulari eta dantbor jole baino gehiago batu zituen. Urteetan Ondarroan bizi ez zen giroa piztu zuen.



Leire Bilbaoren letrak, 'Txitxarroa eta atuna' diskoan

ONDARROA// Jabier Muguruza konpositore eta musikari irundarrak haurrentzako *Txitxarroa eta Atuna* diskoa kaleratu zuen Leire Bilbao idazle ondarrutarraren letrekin. Bien esanetan «musikak eta poesiak bat egiten zuten, metaforez eta onomatopeiez osaturiko abestietan». Bilbaok esan zuen diskoan parte hartzea «ohorea» izan zela: «Urontzian dagoen arraina itsasora bota, eta libre utzi duzue. Horrela sentitzen dut poesia musika kantu bihurtzen denean». Abestien bidez istorioak kontatu zituen, poesiak narratiboak izan daitezkeela adieraziz: «Poztasuna dago baina tragedia ere bai, eta hori ere kontatu behar zaie umeei; hitz egin behar zaie bizitzaz, maitementzeaz, heriotzaz, bizitzako harrokeriaz eta tuntunkeriez».

• ERA GUZTETAKO ERREFORMAK • TEILATUAK • FATXADAK

ERAIKUNTZAK ETA HARRILANAK S.L.

IBARRI

687 795 736 • ibetarra@ibetarra.eus

• Eleizkale 5, 48380 AULESTI (BIZKAIA)

• BASERRIEN BARRIZTEA • ERAIKUNTZA BERRIA • PROIEKTUAK

INOXKEA

HIRI ALTZARIAK

inoxkea@inoxkea.com www.inoxkea.com

INOXIDABLEAK eta burdin lanak

Tel. 94 624 35 40 / Mug. 626 77 01 97

Okamika indust. 1.ª pab. 1. Mod. / 48289 GIZABURUAGA

Etxaburu eta Gallastegi presoak, Euskal Herrira

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Aitzol Etxaburu Artetxe preso ondarrutarra eta ama mutrikuarra zuen Irantzu Gallastegi Sodupe preso berangoarra Euskal Herrira lekualdatu zituzten. Etxaburu Lannemezango (Frantzia) kartzelatik Martuteneko espetxera lekualdatu zuten, eta senideek esan zuten han Asier Badiola preso ondarrutarragaz bat egin zuela. Gallastegi Estremertatik (Madril, Espainia) Zabalara lekualdatu zuten. Salbuespen legeek behin betiko desagertu behar zutela aldarrikatu zuten preso senideek, Etxeratek deituta.



ADEL, iragarpenak eta ikusle kopurua gaindituta

AULESTI// Aulesti Artedrama Euskal Laborategiak (ADEL) hemezortzigarren aldiz sormenez bete zuen. Iragarpenak eta ikusle kopurua gainditu zituen, eta antolatzaileen hitzetan, antzezlan denak pilotalekura aldatzea «erabaki arrakastatsua» izan zen. Metrokoadrokaren *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan* obrak erakarri zuen jende gehien.

tzetan, antzezlan denak pilotalekura aldatzea «erabaki arrakastatsua» izan zen. Metrokoadrokaren *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan* obrak erakarri zuen jende gehien.



Eskola berria, 2026/2027 ikasturterako prest

ETXEBARRIA// Etxebarriko Udaleko, guraso elkarteko eta eskolako zuzendaritzako ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailagaz bildu, eta aurreproiektuaren berri izan zuten. 2026/2027 ikasturterako eskola berria prest egongo zela esan zuten.



Euskaltzain osoko harrera ekitaldia

LEKEITIO// 2022ko otsailean Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu ostean, Miren Agur Meabe ofizialki euskaltzain oso izan zen Lekeitio harrera ekitaldia egin eta sarrera hitzaldia irakurrita. Bere ibilbide poetikoa balioetsi, eta euskara eta literaturaren atak zabaldu zizkietenak omendu zituen.

H. I. Aretxaga

Finka administratzailea
Higiezin zerbitzuak
Alokairuak eta salerosketak

Irigoien Aretxaga
Bosgarren finka
administratzailea, s.d.: B08
Arreaga 11-Lekeitio
Tel./Faxa: 94-465 35 75
Sakelakoa: 656 58 03 14
lairetxaga@yahoo.es

BURDINGAI S.L.

ERREMENTARITZA

Aroztegi metalikoa
Galdaragintza
Burdintingintza artistikoa

T. 94 624 36 34 / Faxa: 94 684 03 69
burdingai@euskalnet.net / burdingaisl@euskalnet.net
Olaneta Ind. 4. pto- 3 624 BURDINGAI (Lekeitio)

IRIGOIEN OPTIKA

OPTIKO-OPTOMETRISTA
AUDIOPROTESISTA
ENTZUMEN ZENTROA

Zumatzeta, 1
48280 LEKEITIO
638 37 63 33
T./Faxa: 94 684 31 72
irigoienoptika@telefonica.net



Karpa bete jende eta pintxo, Mutrikuko 26. Berdel Egunean

MUTRIKU //
900 kilo berdel erabilia, hamaika erataraz egindako milaka pintxo banatu zituzten

Ekimenez ekimen, eguraldi txarrari aurpegi ona jarri zioten 26. Berdel Egunean. 900 kilo berdel erabilia, hamaika erataraz egindako milaka pintxo banatu zituz-

ten, Mutrikuko Kofradiaren aurrean, eta ilara luzeak sortu ziren. Eguna ezin hobeto amaitzeko, agertokira igo ziren Belarri Fuckers eta Delirium Tremens talde mitikoa.

Mutriku Arraun Taldea
«Arraun zaletasuna berreskuratzeagatik eta oro har, ezer bueltan espero gabe herriaren alde egindako lan

guztiagatik», Mutriku Arraun Taldeak jaso zuen Berdel Aipamena. Saria jasotzean, esker onez agertu ziren Gerardo Graña presidentea eta Peru Vidal arraunlaria. Gerardok esan zuen saria talde osoarena zela, eta Vidalek, aldiz, bertsoa botata agertu zuen esker ona. Bestalde, Mutrikuko Arte Lagunek horma irudia bistaratu zuten portuan.

Ibai Pastor, Mutrikuko Musika Bandaren zuzendari berria

MUTRIKU// Ibai Pastorrek hartu zuen Mutrikuko Musika Bandaren gidaritza. Zuzendari berria hautatzeko prozesua abiatu zuten 2022ko azaroan; izan ere, ia urtebete zeramatzen zuzendari ofizialik gabe, eta egoerari buelta emateko asmoz abiatu zuten. Deialdira aurkeztutakoen artean hiru hautagai aukeratu zituzten; Pastor, Beñat Etxabe eta Aritz Labrador. Musika Bandatik esker hitzak eskaini zizkieten gainontzeko hautagaiei: «Momentu honetan, triste ere bageude, beste bi zuzendari paregaberik ezezkoa eman behar izan diegulako. Beñat Etxabe eta Josean Pascual, zuokin pasatako denbora zoragarria izan da, eta esker hitzak besterik ez ditugu zuontzat».



Mendia eta itsasoak egiten gaitu


ISPASTER
udala



www.ispaster.eus



Isuntza eta Ondarroa, bateletan onenak

LEA-ARTIBAI// Bizkaiko Batel Txapelketan Ondarroa nagusi izan zen nesken ume mailan eta mutilen gazte kategorian. Isuntzak, berriz, nesken alebin mailako bandera irabazi zuen. Biek ala biek beste hainbat podiumetan sartzea lortu zuten, eta Lea hirugarren sailkatu zen nesken kadete mailan.



858 lagun bildu zituen Boga! mendi martxak

ONDARROA// 858 mendizalek egin zuten Ondarroako Aurrera Mendi Taldeak eta Zubi Zahar Herri Ikastolak elkarlanean antolatutako Boga! mendi martxa. Ohiko formatura bueltatuta, hiru ibilbide izan ziren aukeran: 54 km-koa, 24 km-koa eta 11km-koa.



Inoizko jende gehien, Elizpe Rock jaialdian

ETXEBARRIA// Etxebarriko V. Elizpe Rock jaialdiak inoizko jende gehien elkartu zuen. Ohiko datara itzuli zen jaialdia, eta antolatzaileek ahalegin berezia egin zuten, lehen aldiz Lea-Artibai eskualdeko kanpoko taldeak ekarrita. Dena talde ondarrutarrak eta A.D. markina-xemeindarrak ere jo zuten.



Txantxangorrik Irri Eguna ospatu zuen

MUTRIKU// Mutrikuko Txantxangorri Aisialdi Taldeak Irri Eguna eta 20. urteurren jaia ospatu zituen. Erromeriaz eta umeentzako jardueraz gain, taldearen argazkien eta dokumentalaren erakusketa jarri zuten, Zabel Kultur Etxean.

tratamendu
indarberritasun
ilearentzat

kuruko
sala
mimatsen
dugu

PUTEBIL
SLICE-COSMETICS

100% BURGESA
AZALAREN ABARMENTZAKO

solariune

jesune
ileapaindegia

artibide, 17 ondarroa • 94-608 81 17
martitzarenetik barikura: 9:00 13:00 / 15:00 19:00
abuztuarenetik: 9:00-14:00

Joseba Fernandez Bedialauneta

**itxas
xare**

ITXAS ONTZIEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA

659 67 02 33
943 60 38 72
josebabedi@gmail.com
Antzomendi Polig./ Galdona bidea
• P1 pabiloia • 20830 MUTRIKU
(Gizakoei)

KAFETEGIA
& GOZOTEGIA
OKINDEGIA

Koxkorra

San Inazio, 7 behea
ONDARROA
94-641 38 35



Munitibarko bonbardaketa, liburu batean jasota

MUNITIBAR// 1937an jasandako bonbardaketaren inguruko testigantzak, informazioa eta denetariko datuak jaso zituzten *Munitibar 1937/04/26: Aire-Eraso baten kronika* liburu-

ruan. Ahaztuen Oroimena 1936 elkartea eta herritarrak egon ziren memoriaren indusketak ardatz zuen proiektuaren atzean, udalaren babesagaz.



Larreategi, nagusi Peru Abarkan

MARKINA-XEMEIN// Yolanda Larreategi idazle markina-xemeindarrak irabazi zuen Peru Abarka album lehiaketa, *Putxa gorda* lanagaz.



Andra Martxia, bigarren urtez

LEKEITIO// Lekittoko Mugimendu Feministak antolatutako II. Andra Martxia oso arrakastatsua izan zen. 100 emakume baino gehiagok parte hartu zuten.



Zeta Zine Klubak bere jarduera bertan behera utzi zuen

ONDARROA//

Ondarroako Zeta Zine Klubak bere jarduera amaitutzat eman zuen. Saiakerak egin arren, eta nahiz eta publikoak erantzun, taldeko kideek esan zuten ez zutela herrian zinema mantentzeko «irtenbide iraunkorrik topatu eta indarrak agortu» zitzaizkiela. Herrian zegoen hutsunea ikusita, taldea 2019an hasi zen lehen pelikulak herrian bertan proiektatzen, eta «helduentzako zinema independentea go baten alde apustu» egin zuten, umeentzako pelikula komertzialagoei ere tarte emanaz. Pandemia ostean, indarberrituta, programazio egonkorrago baten alde egin zuten; lekuz aldatu eta Kofradia Zaharrean espazio propioa bilatu zuten. Bidelagun izandako guztiei eskerrak eman zizkieten, besteren artean, Kideri, Eikari, 11Barri eta Kurikeri.



KARDALA
LANBIDE HEZIKETAKO
AKUAKULTURA ESKOLA

**AKUAKULTURAKO
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

**FORMAKUNTZA PRAKTIKOA
PRAKTIKAK EUROPEAN ZEHAR**

ATE IREKI PERTSONALIZATUAK












idazkaritza@kardalalhi.net

943 607137

Mutrikuk kale museo bihurtzeko bidea hartu zuen

MUTRIKU// Mutriku aire libreko museo bilakatzeko bidean, lau horma irudi egin zituzten. Urtero artista ezberdinak gonbidatzea aurreikusi zuen udalak, eta baita artista bakoitzak 10 urteko bermea ematea ere, bere horma irudia bere horretan mantentzea ziurtatuz.



Lea-Artibaiko Eskolarteko Kirol eta Jolas Topaketa

LEA-ARTIBAI// Lau urteren ostean, Lea-Artibaiko Eskolarteko Kirol eta Jolas Topaketa berreskuratu zuten. Bi egunez, txandaka, eskualdeko ikastetxeetako DBH 1 eta DBH 2ko

500 ikasle baino gehiago elkartu ziren Lekeition. Plazan, portuan eta hondartzan denetarikoko guneak izan zituzten nahi beste kirol eta jolas probatu ahal izateko.



Eusko Ikaskuntza Saria, Kirmen Uriberentzat

ONDARROA// Kirmen Uribe idazle ondarrutarrak 2023ko Eusko Ikaskuntza saria irabazi zuela iragarri zuten maiatzean eta uztaillean izan zen sari banaketa ekitaldia. Euskal kulturaren enbaxadore eta euskal literaturaren berritzaile nagusietako bat zela nabarmendu zuen epaimahaiak.



Alde Zahar bete ospakizun, Antxoa Egunean

ONDARROA// Antxoa Egunaren oinarriak indartsu daudela berretsi zuten ondarrutarrek. 22. Antxoa Egunean Josu Arriabalaga Basterretxea omendu zuen udalak, herriko berba eta esaerak batzen eta aztertzen urteetan egindako lanagatik.


Eraikuntzak
Kortabitarte, s.l.
 Santa Katalina, 1A
 tf.: 94 684 08 52
 faxa: 94 684 26 78
 LEKEITIO
MOTA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK


lagunkor
 aholkularitza & inmobiliaria

 Artabide 12, Ondarroa / info+ 94 683 18 02 / info@lagunkor.eus



Euskaratik eta euskaraz hezteko aldarriak hartu zuen IbilaldiXE

ONDARROA //

Milaka euskaltzale bildu ziren Ondarroan ospatutako 2023ko Ibilaldian

Giro paregabean, milaka lagun batu ziren Ibilaldian ikastolei, euskarari eta euskal kulturari hauspoa emateko. Eider Galarraga Zubi Zahar Herri Ikastolako le-

hendakariak Ondarroako herria eta euskara jarri zituen erdigunean, Xe leloaren garrantziari aipamen eginez: «Hitz egiteko modu bat ez ezik, herri bat ere irudikatu nahi dugu. Euskara berea duen herri bat». Leire Bilbao ikasle ohi eta idazleak idatzitako letrari aipamena egin zion, abestiak ondo irudikatzen baitu xedea: «Ez da jauziko zubixe,

geu ga eusten daben herrixe». Ikastolek sorreratik aldarrikatu duten euskarazko hezkuntza sistemaren aldeko aldarria egin zuen: «Euskaraz hazi eta hezi nahi ditugu Ondarroan zein Itsasun».



Larrialdietako pediatria zerbitzua hurreratzeko eskaera

LEA-ARTIBAI// Lekeitioko alkate Koldo Goitiak eta Ispasterko alkate Garbiñe Saenz de Buruagak larrialdietako pediatria zerbitzua Lea-Artibaira hurreratzeko eskatu zioten Gotzone Sagardui Osasun Sailburuari. Eskualdeko herritarrek osasun zerbitzuekin lotuta zituzten kezak helarazi zizkioten. Sailburuak azaldu zien Osakidetza «sare bat bezala» funtzionatzen duela, eta saretze hori mantentzea, «oso garrantzitsua dela, bai ikuspuntu tekniko, bai osasunarenetik». Horrez gain, Sagarduik konpromisoa hartu zuen Lea-Artibai inguruko ospitaleetan ematen ziren osasun zerbitzuak gehitzeko eta zeudenak hobetzeko. Goitiak, bestalde, Osakidetzaen helikoptero zerbitzua balioetsi zuen, inguruko udalerriz guztiak artatzen dituela azalduz.





Lea. altxor txikien gordeleku



**MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA**



**AULESTIKO
UDALA**



**GIZABURUAGAKO
UDALA**



**AMOROTOKO
UDALA**



**MENDEKAKO
UDALA**

Elxalde, 1 - 48289 GIZABURUAGA |
tf. 94-684 29 82 | leaibarra@bizkaia.org



Itzulia Women, Lea-Artibain eta Mutrikun

LEA-ARTIBAI// Etxebarrian hasi zen 2. Itzulia Women lasterketa. Munduko txirrindularirik onenek hartu zituzten Lea-Artibaiko eta Mutrikuko errepideak. 2022ko Itzulia Womeneko irabazle Demi Vollering nederlandarrak lortu zuen etapa garaipena, eta bigarren urtez jarraian, nagusitu zen lasterketan.



Lan baldintzak hobetzeko eskaria

LEKEITIO// Uribarren Abaroa zaharren egoitzako langileak, Lea-Artibaiko Laneko Autodefentsa Sareagaz batera, «gutxieneko lan baldintzak bermatzeko» antolatu ziren. Lan baldintzak hobetzea exijitzeko sinadura bilketa jarri zuten martxan.



Berriatuko FT, Lurraldeko Lehen Mailara

BERRIATUA// Ligan bigarren amaituta, denboraldiko helburu nagusia bete zuten Berriatuko FTkoek: Lurraldeko Lehen Mailara igotzea. «Egindako lan guztiaren ordainsaria» zela azpimarratu zuten klubaren ordezkariak, eta jasotako «babes eta elkartasun uholdeagatik» eskerrak eman zizkieten jarraitzaileei.



Erraldoiak sortzeko proiektua, elkarlanean

BERRIATUA// Berriatuarrak erraldoi bi sortzeko prozesua abiatu zuten elkarlanean, eta buruarinen ikastaroa eskaini zuten (argazkian). 2024ko sangregorioetarako erraldoi bi eduki nahiko lituzketela esan zuten.

ITURGINTZA | GALDARAK | GASA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Maguregi

Maguregi
iturgintza

DENDA BERRIA: Buenabentura Zapiain, 3 behea
TAILERRA: Aldamiz Etxebarria, 1 behea • **LEKEITIO**
656 70 83 92 • 94-684 00 22 • maguregi_iturgintza@yahoo.es

Lauri's

SAN IGNAZIO 8 BEHEA
ONDARROA (BIZKAIA)
94-609 97 04

LAYROK.S.L.
IGELTSE RITZA

636 150 729 • 629 561 332
Gardotza Industrialdea, P 21 Eraikina • BERRIATUA



Munitibar Open Seriesa lehiatu zuten lehenengoz

MUNITIBAR// Barandika eta Lekerika gernika-lumotarrek irabazi zuten Munitibar Open Seriesa. Bi setetan garaitu zituzten Erkiaga ispasterterra eta Zabala markina-xe-

meindarra. Eraman enpresak zesta-punta bultzatzeko zereginen, herri txikietara luzatu zuen bere eskaintza, eta lehenengoz antolatu zuen Munitibar Open Seriesa.



Aparkalekuko zati bat, behera

MUNITIBAR// Munitibarko udaletxe atzeko aparkalekuko zati batek behera egin, eta auto bat kaltetu zen. Suhiltzaileek aparkalekua hustu eta ingurua hesitu zuten.



35. San Gregorio txapelketa

BERRIATUA// Nagusien mailan, Xabi Barandikak eta Gorka Mugartegik eta Erika Murgartegik eta Eneritz Lizardik irabazi zuten Berriatuko 35. San Gregorio txapelketa.

Lea ibilbidea «erakargarriago» bihurtzeko neurriak

LEA-ARTIBAI// Lea Ibilbidean turismo jasangarritasuneko planean zehaztutako neurrien arabera ekintzak egitea erabaki zuten Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoaren batzar nagusian. Autokontsumo elektrikoa eta industriaren berreskurapena ardatz hartuta, besteak beste, Bengola Energia eta Natur Parkean instalazio fotovoltaikoa ipintzea eta bailarako industria ondarea berreskuratu asmoz, Gizaburuagako Bengolea erostea adostu zuten. Esan zuten, Lea ibilbidearen «erakargarritasuna handitzea eta ibarraren garapena indartzea» ziren neurri guztien jomugak. Eta beritasun horiek guztiak Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailagaz hitzartuta egon ziren; izan ere, Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoak eta Eusko Jaurlaritzak adostuta zeukaten Lea Ibilbidea Euskadi Helmuga-ko turismo jasangarritasuneko lurralde planaren barruan sartzea. Besteren artean, aipatutako neurri horiek Europako Batasuneko Next Generation planak finantzatuta egongo zirela jakitera eman zuten.

Lanbide Heziketa

Batxilergoa

Lanerako prestakuntza Ikastaroak

www.leartik.eus

94 616 90 02 info@leartik.eus

lea artibai
ikastetxea

HETEL

Gizonezko bat atxilotu zuten, sexu erasoa leporatuta

ONDARROA// Sexu erasoa egitea leporatuta, 32 urteko gizon bat atxilotu zuten Ondarroan, eta Gernikako epaitegi-
ra eraman zuten. Ertzaintzak jakinarazi zuenez, atari batean harrapatu zuen emakumea, eta sexu ukituak egin zizkion: «Biktimak ihes egin zion erasotzaileari, eta bere etxean babestu zen». Udaletik jakinarazi zuten protokoloa martxan jarri, eta jarraitu beharreko prozedura hasi zutela. Eta Lea-Artibaiko Itaiak erasoa gogor salatu, eta indarkeria matxistari aurre egiteko antolatza deitu zituen herritarrek.



Autobus geltokiak liburutegi bihurtuta

GIZABURUAGA// Herritar baten proposamena aintzat hartuz, eta Gizaburuagako Udalaren ekimenez, liburutegi txikiak jarri zituzten Eleizaldeako bi autobus geltokietan. Ho-

rrela, irakurketa bultzatzea erdigunean ipini zuten. Gainera, geltokian irakurtzeko aukera eskaintzeaz gain, herritarrei autobusean liburu eramateko aukera ere eman zieten.



Erkiagaren ibilbide zabalari omenaldia

ISPASTER// Aritz Erkiaga puntista ispasterarra bere profesional ibilbideagatik omendu zuten herrikideek, eta «hunkituta eta eskertuta» agertu zen. Udalak, gainera, haren omenezko txokoa atondu zuen frontoian.



60 gaztetxo, udako bertso barnetegian

ONDARROA// DBH1etik Batxilergoko 2. mailara arteko 60 gazte bizkaitar elkartu ziren Bizkaiko Bertsozale Elkartearen udako bertso barnetegian, Ondarroan. Hondartza, dantza, literaturari buruzko ikastaroa, bertso saioa... uztartu zituzten.

INMOBILIARIA LOPEZ
Pili López Arritola
Apaltoa kalea, 22
94 624 37 77 / 689 582 582
pili@inmobiliarialopez.net
48280 LEKEITIO

www.inmobiliarialopez.net

KATEGORIA HADDI

ONDARROA
Antiguako Ama 5 - ONDARROA

MARGO-LAN C.B.
• PARKETA LUATU ETA BARNIZATU
• PINTURA APAINGARRIA
• PINTURA INDUSTRIALA
• FATXADAK, KOMUNITATEAK...
655 70 53 26 / 610 33 53 83
margolan15@gmail.com
ONDARROA



Harrotasunaren Egunean eskualdeko elkarretaratzea egin zuten Mutrikun.

Herriak «gune seguruak» bilakatu arte, borrokan

LEA ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Lea-Artibai eta Mutrikuko desbiauk taldeak antolakuntzarako deia zabaldu zuen

LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Egunean eskualdeko manifestazioa egin zuten Mutrikun, Lea-Artibai eta Mutrikuko desbiauk taldearen deia erant-

tzunda. Argi utzi nahi izan zuten herriak ez zirela «espazio seguruak», eta bertan bizitzeko eta aldarrikatzeko «askapena» eskatu zuten: «Ezin dugu ahaztu gure herrietako desbiatuok sexiliorako dugun beharrezana, herrietatik hirietara egingandako migrazioa da sexilioa, aniztasunaren bila. Ez dugu izan ahal izateko kanpora joan beharrik izan

nahi». Helburu bezala jarri zuten Lea-Artibain eta Mutrikun ere «espazio posibleak eta nortasun bizigarriak» sortzea. Euren borroka «antikapitalista, transbertsala eta transfeminista» zela eta hala izaten segituko zuela esan zuten. Era berean, antolakuntzarako deia egin zuten «gizarte kapitalistak eskaintzen duen» alternatiba polizialaren aurrean.

II. Berdintasun Plana aurkeztu zieten herritarrei

BERRIATUA // Emagin Elkartek eta Berritxuko Neskak talde feministak udalaren babesagaz II. Berdintasun Plana jorratu zuten, eta herritarren aurrean aurkeztu zuten. Planean genero arteko berdintasunaren errealitatea ikusarazteko egindako diagnostikoaren emaitzak bistaratu zituzten, baita detektatutako gabeziak konpontzeko neurri nahiz proposamen sorta ere. Planak lau eragin eremu barnebildu zituen: udala, indarkeria, ahalduntzea eta ekonomia-aren nahiz gizarte antolakuntzaren eraldaketa. Besteak beste, adineko emakumeen arteko saretzea bultzatzeko neurriak hartu zituzten: «Zaintza lanak erantzukizunez banatzeko, herritar sareak josi dira; komunikazioa eta auzolana, oro har, indartu ditugu». Foro feminista baten sorrera bultzatzea ere jaso zuten planean.




MARKINA-XEMEINGO UDALA



www.markina-xemein.eus
www.markinaxemeinturismoa.eus






Omenaldi beroa, herritarren babesagaz

ONDARROA// Amaia Aulestia eta Jabier R. Urrutxeri omenaldi kontzertua eskaini zioten, Andra Mari elizan. Kantaizek antolatuta, Ondarroako Udalaren laguntzagaz eta herriko kultur talde ezberdinen partaidetzarekin, egitarau oparoagaz gozatzeko aukera eskaini zuten. Herritar asko hurbildu ziren ekitaldira.



Hobekuntzak egin zituzten Gaztegunean

MENDEXA// Gaztetxo eta gurasoen eskaeretatik abiatuta, eta auzolanean egokitu ostean, Mendexako Gaztegunea martxan jarri zuten berriro. Espazioa garbitu, margotu eta zenbait altzairu berriekin hornitu, eta liburutegia Gaztegunera lekualdatu zuten.



Dantzariak kaleak hartu zituzten

MUTRIKU// Dantza Eguna eta Erromeria Eguna jardunaldi berean ospatu zituen Mutrikuko Gure Ametsa dantza taldeak, bigarren urtez. Goizeko kalejiraren ostean, Alardea egin zuten eguerdian, Goiko Plazan. Arratsaldean, berriz, Gauargi taldearen erromeria izan zuten, Beheko Plazan.



Markina Shots jaialdia, «markak hausten»

MARKINA-XEMEIN// Markina Shots jaialdiak «hitzik gabe» utzi zituen ikusleak; beste urte batez, «markak hautsi» zituen. The Daltonics, Orkresta Elektrotuna, Mocker's, Los Paniks, Mourm eta Los Mambo Jambo taldeek osatu zuten programa.



MASKOTEN DENDA ETA ILEAPAINDEGIA

San Inazio 37, behea | Ondarroa
Tel. 94 656 94 61 | elgeta@me.com

ALBAITARITZA ZERBITZUA ERE BAI!



GARBIKETA ZERBITZUAK

94-684 27 51
608 87 49 60

Okamikako industrialdea GIZABURUAGA



Baso Bizien Eguna «hurbileko giroan» eman zuten

BERRIATUA// Baso Bizien Plataforma osatzen duten 18 elkarteetako kideak Berriatuan batu ziren. Tokiko nahiz kanpoko espezieekin egin daitezkeen landaketa ereduak zein

ur harguneekin lotutakoak, lurzorua ren garrantzia, basogintza ekologikorako estrategia eta jarraibideak eta Legarmendi gailurreko indusketak izan zituzten hizpide.



Arrakastatsua izan zen Xiri Eguna

MUTRIKU// Mutrikuko Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren XX. urteurrena ospatu zuten Xiri Egunean. Besteak beste, mural margoketa eta Gaztetxean kontzertuak izan ziren.



Karenka Elkartearen eskaera

ONDARROA// Oihane Saizarrek 2023-2024 ikasturtean gela egonkorrean jarraitzeko aukera izateko eskaera egin zion Karenka elkarteak Hezkuntza Batzordeari.

Behin-behineko onarpenera eman zioten HAPOri

BERRIATUA// Jarduera ekonomikoa, etxebizitza eta auzoetako lursailak publiko egitea ardatz zituen Berriatuko Herri Antolamendurako Plan Orokorrari behin-behineko onarpenera eman zioten. Eta Bizkaiko Foru Aldundiaren behin betiko ebazpena hiru hilabeteren barruan jasoko zutela adierazi zuten. 1993. urteko HAPOr zeukaten indarrean, ordutik hura moldatzeko hainbat saiakera egin arren. Hain zuzen, 2015ean onartu ez zuten HAPOr ere duari aldundiak zehaztutako moldaketak egin zizkieten proposamen horretan. Etxebizitzari zegokionez, HAPOr behin betiko onarpenak herrian 60 etxebizitza egiteko aukera ekarriko zukeen, horietako hogeitababes ofizialekoak. Horrez gain, herriaren erdigunean ere beste hamabost etxebizitza eraikitzeko baimena ere suposatzen zuen onarpenak. Plan orokorraren behin-behineko proposameneko alderdi nabarmenetako bat jarduera ekonomikorako beren-beregi sortutako bi gune berriren sorrera izan zen. Hala, HAPOr proposamenak zenbait lursail publiko egiteko aukera zekarren.



mendexako udala
www.mendexa.net

Itsasoa eta mendiaren topaleku



Xemeingo Gaua «munduari kantatuz» buelatu zen

MARKINA-XEMEIN// Pandemiaren geldialdiaren ostean, Xemein Abesbatzak antolatzen duen Xemeingo Gaua berreskuratu zuten. *Munduari Kantatzen: da capo al fine* izenburupean eta Itxaso Jaio eta Xabier Mendez zuzendarien agindupean egin zuten VI. Xemeingo Gaua. Xemeingo Abesbatza, Xemeingo gazte ahots abesbatza eta Soka laukoteagaz batera, Aintzane Basterretxea, Alfonso Rodriguez, Isidoro Garcia, Gorka Ardaraz eta Agate Amilibia musikariek eta Iratxe Ibarra eta Oscar Alberdi bertsolariek parte hartu zuten.



Frantziako Tourra, bertoko kale eta errepideetatik

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Frantziako Tourra Euskal Herrian hasi zuten, eta Gure Eskuren deia bat eginez, Euskal Herriaren erabakitze eskubidea zabaldu zuten han

eta hemen. Lea-Artibai eta Mutrikutik 3. etapari, uztailearen 3an, pasatu zuten, eta eskualdeko herritarrek kolorez, aldarritz eta animo garrasiz bete zituzten bazterrak.



Osakidetza «ageriko murrizketak» salatzen

AULESTI// Osakidetza murrizketarik ez egiteko eta herritarrek lehen arreta zerbitzua herrian jasotzea bermatzeko eskatuz, mobilizazio dinamika jarri zuten martxan Aulestin. Medikua eta erizaina egunero herrian egon zitezen galdegin zuten.



Asisko Urmenetaren erakusketa, museoan

ZIORTZA BOLIBAR// Simon Bolivarren jaiotzaren 240. urteurrena ospatzeko Asisko Urmenetaren erakusketa jarri zuten Simon Bolivar Museoan. Inaugurazio egunean, hitzaldia, ekitaldia eta D'Capricho taldearen kontzertua izan zituzten.

Zure etorkizuna landuz
OINARRIZKO HEZIKETA PROFESIONALA

SUKALDARITZA

MANTENIMENDUA

Peñascal
kooperatiba

94 616 96 52
Kareaga Industriegunea 33. eraikina
48270 Markina-Xemein

mantxua

taberna jatetxea • Beaskokalea, 24
LEKEITIO • 94-465 33 49

sukaldeko altzariak | ateak | leihoak | etab...

OSQ
aroztegia

info 94 683 02 29
Inaki Deuna 29 / Ondarroa
osazerreformak@gmail.com



Ondarroa txiki geratu zen Zapato Azulean

ONDARROA //
Radixu Irratiak Zientziaren Giltzak elkartea omendu zuen

24. Zapato Azulean ere Ondarroa txiki geratu zen. Radixu Irratiak Zientziaren Giltzak elkartea omendu zuen, eta 226 parte hartzaile izan ziren Dinamartxan, 45 mendizale eta 181 txi-

rrindulari. Bestalde, Euskal Herriko Kamiseta Azoka. 14 taldek parte hartu zuten, eta Artea Soineanena izan zen Euskal Herriko kamisetarik onena eta Portuko Ranpirena Ondarroakoa.

Bi eraso matxista salatu
Jaietan eraso matxistei aurre egiteko Herri Protokoloaren koordinazio mahaiko kideek bi eraso matxista sa-

latu zirela jakinarazi zuten; bi aldiz aktibatu zuten protokoloa. Zapato Azulean sexu erasoa egitea leporatuta, gizon bat atxilotu zuten.

BIDEOA ETA ARGAZKI GALERIA:



'Geuretik Sortuak' beka zukutu zuten bertoko lau herritan

LEA-ARTIBAI // Udalbiltzak eta Euskal Herriko hainbat udalek Geuretik Sortuak bekaren bigarren deialdia egin zuten, eta hori lortuta, Saioa Alkaiza Guallar iruindarra eta Jon Ander Urresti Ugalde bermeotarra Lea-Artibain aritu ziren euren sormen lanetarako inspirazio bila. Nafarrari Berriatua egokitu zitzaion, eta bizkaitarrari, aldiz, Amoroto, Aulesti eta Munitibar. Horrela, egonaldien balorazio «aparta» eginda, lanen «hezurdura prest» zeukatela aitortu zuten biek ala biek. «Adinean zaharragoak direnek, adibidez, esku zabalik hartu naute, eta neure lanerako benetan baliagarriak izan diren hamaika gauza kontatu dizkirate», esan zuen bermeotarrak. Alkaizak azaldu zuen «errutina eraldatzen zuten baina oharkabea pasatzen diren kontuak» islatzeko asmoa zeukala bere lanean, eta horretarako «toki egokia» aurkitu zuela.



Elkar hartzeko bitartekoak eraikitzen

Urte barri on!





21.000 ikusle baino gehiago, Kalekan

LEKEITIO// Hiru egunez, 400 proposamenetik gora eta 21.000 ikusle baino gehiago batu zituen 33. Kalekak. Lekeitioko Nazioarteko Kale Arteen Jaialdian aipamen berezia egin zioten Leki-toko Deabruak konpainiak izandako bilakaerari. Antolatzaileek eskerrak eman zizkieten konpainia, laguntzaile eta kolektiboek.



Markina-Xemein, herriartekoan garaile

MARKINA-XEMEIN// Euskal Herriko Herriarteko Esku Pilota Txapelketa irabazi zuen Markina-Xemeinek. Oartzunen kontrako finalean, kadeteek 22 eta 13 eta nagusiek 22 eta 5 irabazi zuten, eta gazteek, aldiz, 8 eta 22 galdu zuten.



Barandikaren eta Basqueren Grand Slama

MARKINA-XEMEIN// «Faborito isilek» konstantziaren garaipena lortu zuten Markina-Xemeingo Grand Slamean. Xabi Barandika gernika-lumotarrak eta Thibault Basque bidartarrak, Aritz Erkiaga ispastertarrak eta Ion Ibarluzea markina-xemeindarrak hirugarren seta irabazita jantzi zituzten txapelak.



'Andrak erramutan' ekimena aurkeztu zuten

ONDARROA// *Andrak erramutan* proiektu feministaren bitartez, 45 urtetik gorako emakumeek arraunean ikasi eta udan itsasoratze aukera abiarazi zuten. Ondarroa Arraun Elkartaren eta udaleko Berdintasun Sailaren babesa jaso zuten.

NABERAN

www.naberan.com

**ITSASORAKO
SAREAK
ETA ITSASGAIAK**

Mutrikuko Industrialdea, 15
61 postakutxatila
MUTRIKU
tf.: 943-19 51 22
faxa: 943-19 51 25



**OGITEGIA
PLAZA**

ATXABAL, 4
LEKEITIO
94 684 02 07

**porru
anaiak
margolariak**

615 764 435
657 771 028
615 767 564
ariakuk@euskalnet.net



**URBASA
GARBIKETAK**

Telf. 94 616 83 32



Euskal Herria Perimetrala bete zuten, hiru egunetan

BERRIATUA// Helmugak taldeko kideek, Euskal Herria Perimetrala burutu zuten. Gaixotasun desberdinak dituzten ume eta gurasoak biltzen zituzten Aspanovas, Aspa-

nogi, Bihotzez eta Arnasa elkarteei laguntzeko erronka izan zen, eta Euskal Herriaren perimetrea zeharkatzeko 1.106 kilometro egin zituzten hiru egunetan.



Basamortutik Ondarroara

ONDARROA// Tindufeko errefuxiatuen kanpamendutik irten, eta Oporrak Bakean programaren bitartez, zazpi haur saharar Ondarroan egon ziren hilabete batez.



Herri Krosa, hirugarrenez

ETXEBARRIA// Txik-Txak Kirol Elkarteak hirugarrenez antolatu zuen Etxebarriko Herri Krosa. Ume zein nagusiei zuzenduta, hiru ibilbide izan ziren: laburra, ertaina eta luzea.



Mutriku Natur Taldeko kideak, Legebiltzarrean

MUTRIKU// Mutriku Natur Taldeko Rafael Perezek, Alberto Lejardik eta Iñigo Agirrek Mutrikuko Portuaren Plan Bereziaren bilakaerari eta uneko egoerari buruzko txosten informatiboa aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarren Jasangarritasun, Ingurumen eta Ingurune naturalaren Batzordean. «Premiazko S.O.S. bat eskatu behar dugu Mutrikuko portuko obrak birplanteatzeko», adierazi zuten. Hain zuzen ere, dikea zegoen bezala uztea, metro bakar bat ere ez luzatzea eta dikearen babesean espazio publikoa denen artean askatasunez partekatzea eskatu zuten: «Kalte handiegia egin zaio ingurumenari, ondareari eta paisaiari, eta, obrek aurrera jarraitzen badute, itzulera-rik gabeko puntu batera iritsiko gara». Mutrikuko portu historikoaren sarrera hobetzea posible zela argudiatu zuten.

*Euskarak egiten gaitu
herri euskaldun*



Mutrikuko Udala

Probalekuko auditorioa inauguratu zuten

MUNITIBAR// Tor magoaren *Amarru* ikuskizunagaz eta *Azken Oturuntza* antzezlanagaz, Munitibarko probalekuko auditorioa inauguratu zuten abuztuaren 4an. Arkaitz Goikoetxea Munitibarko alkatetik azaldu zuenez, 2022an hasi zituzten auditorioa eraikitze lanak. Proiektua probalekua egokitzea zen, lehenengo probalekuari «erabilera handiagoa» eman behar zitzaiola pentsatuz. 2023ko hobekuntza lanetan, antzoki bateko harmailak eraiki zituzten bertan, «aurretik zeuden metalezko harmaila modularrak ukitu gabe».



Lau gorpuren hezurak, Garraitzeko indusketa lanetan

LEKEITIO// Atabaka Kultur Elkartekoek eta Aranzadi Elkartekoek Garraitz irlan egindako indusketa lanetan, lau gorpuren hezurak aurkitu zituzten, «ermitaren leku zehatz ba-

tean». Horrez gain, komentu zaharraren azpiko horma sendoak ere aurkitu zituzten, eta, horrek, «irlaren beste irudikapen bat egiteko bidea errazten» zuela esan zuten.



«Salmenta onak eta jendea gogotsu», azokan

MENDEXA// Jendea «gogotsu» ibili zen Mendexako Azoka Egunean. 11 artisau postu eta zazpi ekoizleren postu egon ziren, eta eguraldia lagun izan ez arren, salmenta onak eduki zituzten. Frontoian jokaturako pilota partidetan ere jende asko batu zen.



Etixeraten 'Hondartzetara!' ekimenagaz bat

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Etixeraten deialdiari erantzunez, euskal preso, iheslari eta deportatu politikoek jasaten zituzten eskubide urraketak salatzen zituzten. Lekeition 257 pertsona eta Ondarroan 227 elkartu ziren.

SANEAMIENTOS
Ondarroa

800 66 11 11

Berrikuntza onak - Berriztatzeak
Sukaldeak - Berriztatzeak - Zorrotzak

Errezeak - Ondak
espakio@saneamientosondarroa.com
Artalek 22 Bidea | Ondarroa
Tel: 94 685 0945 - 94 116 722

Berrikuntza onak - Berriztatzeak
Sukaldeak - Berriztatzeak - Zorrotzak
almacen@saneamientosondarroa.com
Errezeak 22 Bidea | Ondarroa
Tel: 94 685 0945 - 94 116 722

www.saneamientosondarroa.com

Seijo
PINTURA LANAK

629 315 011
626 774 342

LEKEITIO
Eusebio M. Azkue
(Trinkete aurrean)
sejopinturalanak@gmail.com



32 ontzi elkartu ziren Batelero Egunean

MUTRIKU// Euskal Bateleroen Elkarteak urtero Euskal Herriko herri desberdin batean antolatzen zuen Batelero Eguna, eta 2023koa Mutrikun ospatu zuten, asteburu osoko egi-

tarauarekin. Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako ontziak bildu ziren, 32 guztira. Besteak beste, zinga txapelketa lehiatu, eta zinga ikastaroa eman zuten.



Erronkaz erronka, jolasean

AULESTI// Giro ezin hobean ibili ziren Aulestiko eta inguruetakoko gazte zein umeak Aulestiko Kultur Batzordeak antolatutako *Aulestiko Konkisa* jokoan parte hartzen.



1.000 ikusle Itxas Soinuan

LEKEITIO// 43. Itxas Soinua musikaldiaren balorazio «oso ona» egin zuten. Bost egunetan bost kontzertugaz gozatzeko aukera egon zen, eta 1.000 ikusle elkartu ziren.



Erkiaga eta Del Rio, garaile Lekeitio Master Serie-sean

LEKEITIO// Iñaki Osa Goikoetxeari eta Unai Lekerikari bi setak irabazita, Aritz Erkiaga eta Julen Del Rio nagusitu ziren Lekeitio Master Serie-sean. Del Rioren «segurtasuna» azpimarratu zuten zaleek. Txapel berezia izan zen aurrelari ispasterarrarentzat, bertan ikasi baitzuen zestan jokatzen: «Irabazteko gogoia neukan, eta pozik geratu naiz egindako lanagaz. Familikoez gain, txikitako entrenatzailea ere egon zen, eta baita Ispasterko eta Lekeitio hainbat lagun ere. Giro polita egon zen». Bestalde, Goikoetxea zumaiarraren Santi Brouard pilotalekuko azken partidua zenez, lekeitiarrek egurrezko ontzi bat oparitu zioten esker onez eta oroigarri modura.



euskaraz eta feminismoan bizi gara!

94-683 36 72
ondarroa.eus
udalbarriak.eus







Landare inbaditzaileen arazoa, areagotzen

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU//

Eguzki Talde Ekologistak landare inbaditzaileen presentziaren «larritasunaren» berri eman, eta arazoaren aurrean erakunde inplikazioa eskatu zuen: «Behingoz erakundeak inplikatzeko eskatzen dugu, espezieak paraje berriak kolonizatzen segitzen baitu geldiezin». Lea-Artibain eta Mutriku horien presentzia nabarmena zela esan zuten: «Legez debekatuta dago aleak edukitzea, garraiatzea eta trafikatzeko. Erakunde arduradunek jabeak behartu ditzakete beren lurretan egon daitezkeen aleak desagerraraztera».



35. Ziortzako Kontzertuak, arrakastatsu eta bereziak

ZIORTZA-BOLIBAR// 35. Ziortzako Kontzertuak «oso bereziak» izan zirela, jendea «oso pozik» irten zela eta 2022. urtean baino «arrakastatsuagoak» izan zirela azpimarratu

zuten antolatzaileek. Besteak beste, Juan Antxieta konpositore eta abade azpeitiarra omendu zuten, «programa guztiz bereziagaz».



Senegaldarren jaia, aparteko giroan

ONDARROA// Ondarroako senegaldarrak ez ezik, Berriatukoak, Lekeitiokoak, Mutrikukoak eta Durangokoak batu ziren Senegaldarren jaian, eta Luc Andre Diouf Senegalgo kontsula ere bertan egon zen. Emakumeen isilpeko lana goraipatu zuten.



219 korrikalari, Ondarru-Lekitto lasterketan

LEA-ARTIBAI// Joseba Diazek eta Idoia Nogalesek irabazi zuten VII. Ondarru-Lekitto lasterketa. 219 korrikalarik parte hartu zuten, eta Lea-Artibaiko parte-hartzaileen artean Nahia Ibarzabal eta Haritz Garate izan ziren onenak.

SUGASLAN

635 74 94 79 | 94 684 30 22



Iturgintza,
gas proiektuak,
energia
berriztagarriak
eta eskabazio
lanak.

Abaroa etorbidea, 39
48280 LEKEITIO

sugaslan@gmail.com

Talako
Aroztegia S.L.

SCHÜCO
VISION

ATEAK • LEIHOAK • EGUR ETA LAMINATU ZORUAK •
TOLDOAK PERSIANAK • AROZTEGIKO LANAK OROKORREAN



denda: 94-684 13 01 (P. Abaroa etorbidea, 41C)
tailerra: 94-624 35 74 (P. Abaroa etorbidea, 55)
talakoaroztegia@gmail.com • LEKEITIO

Estalari
aurrekontuak
konpromiso
berrik!



Ager Solabarrieta eta Maite Badiola, Perun.

Solabarrieta eta Badiola, Munduko txapeldun

ONDARROA //
10 metroko distantzian etzanda zein zutik lortu zituzten urrezko dominak

Ager Solabarrieta eta Maite Badiola ondarrutarrek bigarren urtez jarraian jantzi zuten urrezko domina Munduko Txapelketan. Lima (Peru) lehiatutako bi

probetan izan ziren onenak, hamar metroko distantzian etzanda zein zutik.

Errekorra hautsi zuten
Lorpena sekulakoa izan zela azpimarratu zuten. «Iaz lehen aldiz munduko txapeldun izatea ikaragarria izan zen, beraz, bigarren aldiz eta jarraian lortzea itzela da», azaldu zuen Solabarrietak. Gainera, on-

darrutarrek munduko errekorra hautsi zuten: «Munduko Txapelketa ezin izan da borobilagoa izan». Hain zuzen ere, urte guztiko lan gogorraren fruituak jaso zituztela adierazi zuen: «Lima gauza handiak egiteko esperantzaz gatazta, baina ez genuen pentsatzen hainbesterako izango zenik: bi urrezko domina eta munduko errekorra».

Ikasleentzako garraioa bermatzea exijitu zuten

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU //
2023-2024 ikasturtea hasita, Hezkuntza Sailaren eta garraio enpresen arteko gatazkaren ondorioz, ikastetxeetara eskola garraioan joan ezin izan ziren ume asko, eta horrek eragozpenak sortu zituen hainbat familian. Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarterik egoera ikustarazteko eta salatzeko deia egin, eta «konponbide arin bat bilatzea» exijitu zuten. Esate baterako, Markina-Xemeingo Bekobenta eskolaren aurrean elkartu ziren Markina BHiko zuzendaritzak eta Oizpe Guraso Elkartek deituta, eta bertan salatu zuten milaka ikaslek ezin zutela «hezkuntzarako eskubidea baliatu, ez zitzaielako bermatzen ikastetxera iristeko behar zuten eskola garraioa». Era berean, gogoratu zuten aurreko ikasturtean ere antzeko egoeran egon zirela, azken unean konpondu zen arte.



AHOLKULARITZA LIDERRA, TOKIKO ARIMAREKIN

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

www.torrealday.es

BILBAO: +34 688 44 38
 GELAKUR: +34 637 00 38
 IZURDUA: +34 694 86 76
 ZAMORRA: +34 683 29 75

TXAIFER ERAIKUNTZAK, S.L.

Teilatuak, fatxadak, etxe barruko konponketak, igeltseritzako lanak orokorrean. ANDAMIOAK DITUGU

605 71 18 84

txaifer@yahoo.es / Letraukua 1-behea LEKEITIO



Espainiako urrezko dominak, Lea-Artibaira

LEA-ARTIBAI// Berriatua eta Markina-Xemein Espainiako zesta-punta txapeldun geratu ziren. Nesketan Markina-Xemeinek eta Berriatuak jokatu zuten finala; Mugartegi eta Lejardi nagusitu zitzaizkien Arakistaini eta Aldazabali. Mutiletan Alberdik eta Le-kuek gogotik lan egin zuten zumaiarren aurka garaipena lortzeko.



Lea-Artibai Klasikoa, «erabateko festa»

LEKEITIO// Lekeitiale-Silloniz txirrindulari elkartearen 50. urteurrena ospatuz, 150 partaide baino gehiagok egin zuten Lea-Artibai Klasikoa. «Erabateko festa izan zen». Elkartearen ibilbideari buruzko argazki erakusketa ere egon zen Kultur Etxean.



Ia 300 mendizale, X. Mendi Martxan

ISPASTER// Ispasterko X. Mendi Martxan 274 parte hartzaile elkartu ziren. Mendi martxa luzea, laburra eta BTT martxa egin zituzten, eta parte hartzaileak zein antolatzaileak «oso asebeteta» geratu ziren. Gainera, ziklistak, besteren artean, herrian inauguratu berri zen XC zirkuitutik pasatu ziren.



Yalah elkartearen 5. urteurren ospakizunak

ONDARROA// Ondarroako Yalah elkartearen 5. urteurren ospakizunek esker oneko hitzez bete zuten Musika Plaza. Fadel Ahnia Fronte Polisarioko delegatuak jasotzen zuten babesa eskertu zien udalari, herritarrei eta Yalahri.

TXAKARTEGI
MARGOAK

LEKEITIO
94-656 08 26
Buenaventura Zapirain 3, behea

FISIOTERAPIA ZENTROA
— TXOMIN TXURRUKA —

AUTO ISTRIPUAK • ERREUMATOLOGIA • TENDINITISAK
KIROL LESIOAK • MASAIA • BIZKARREKO ETA BURUKO MINAK

Oparitu osasuna! OPARI TXARTELAK

Artibai 12, behea Markina-Xemein Tel.: 94 616 60 32



Frontoi berriua inauguratu zuten

GIZABURUAGA// Jende asko bildu zen Giza-buruagako frontoi berriaren inaugurazio ekitaldian. Amaia Zabala alkateak herriaren nortasuna balioan jarri zuen, eta besteak

beste, Lea Ibarrako pilota eskolako umeen, Beitia-Anitua eta Uriarte-Gomez eta Xala-Pascual eta Okamika-Uriondo bikoteen arteko partidez gozatu zuten.



Peru Abarkako ilustrazio saria

MARKINA-XEMEIN// Yolanda Larreategiren *Putu gorda* narrazioa ilustratzeko, Helena Azkarragaurizar arrasatearrak irabazi zuen Peru Abarka lehiaketako ilustrazio saria.



Azokak jende asko erakarri zuen

ISPASTER// «Erantzun bikaina» izan zuen Is-pasterko Nekazal Azokak. Antolatzaileek balorazio «oso positiboa» egin zuten, jendea jai giroan eta aldarte ederrean bildu baitzen.



Zuhaitz autoktonoak jartzeko ordenantza martxan ipini zuten

ZIORTZA-BOLIBAR// Ziortza-Bolibarko Udalak zuhaitz eta landare autoktonoak jartzeko ordenantza jarri nahi izan zuen martxan. Berriatuko ordenantza «erreferentzia» bezala hartu zuten, eta azaldu zuten baso jabeak zuhaitz autoktonoak landatzera «animatzeko diru laguntzak ematea» zela egitasmoa. Prozesu parte hartzailea izateko helburuagaz, ordenantzan jartzeko herritarren iritzia jasoko zituztela jakinarazi zuten. Ordenantza horren bidez, Ziortza-Bolibarko Udalak etorkizuneko eta momentuko krisi ekologiko eta klima aldaketari «aurre hartu» nahi izan zion, eta horretarako argi zeukaten «herriko lurak prest egotea beharrezkoa zela».



IGELTSEKOTZA
ELEKTRIZITATEA
ETXE-ISOLAMENDUAK

UGARTEBURU, C.B.

Zumatzeta kalea 2 1. D - 48260 LEKEITIO Tel. 605 71 72 74



Haurren eta helduen arteko sentsibilizazio bidea landu zuten

MUNITIBAR// Munitibarko Euskera Batzordeak, Txopiturrri guraso elkarteak, Munitibarko Herri Ikastetxeak eta Kubike aisialdi elkarteak *Haurren Aurrean, Helduok Heldu* egitasmoaren bigarren aldia antolatu zuten. Ekimenak helburu bikoitza eduki zuen: helduen arteko hizkuntz ohituretan eragitea eta helduek haurren hizkuntzaren ikaskuntza bidean eta sozializazio prozesuan daukaten eraginari buruzko sentsibilizazio lana egitea. Besteren artean, ginkana, Euskal Karaoke, ibilaldia eta Lehengo Jolasak egin zituzten.



Udaltzaingoen Lan Eskaintza Publiko bateratua

LEA-ARTIBAI// Ondarroako, Lekeitioko eta Markina-Xemeingo udalek eredu komunitarioan sortutako Udaltzaingo Lan Eskaintza Publikoa egingo zutela iragarri zuten. «Herri

txikien beharrazane ondo erantzungo dien eta bertoko beharretara egokitzen diren udaltzainak izatea da deialdi bateratuaren helburua», adierazi zuten.



Txikia IV.aren erakustaldia, Urrezko Aizkoran

ETXEBARRIA// Urrezko Aizkolaria Txapeldunen Ligako finala hartu zuen Etxebarriak, eta Julen Alberdi *Txikia IV.a*-k erakustaldia emanda jantzi zuen txapela. Gazte mailako lehiaketa eta harri jasotzaileen erakustaldi mistoa ere egon ziren.



Euskadiko Itsas Kayak Txapelketa, lehian

LEKEITIO// Elantxobe eta Lekeitio artean lehiatu zituzten barkakako nahiz taldekako Euskadiko Itsas Kayak Txapelketa eta Euskadiko Itsas Kayak Kopako seigarren proba. Kadete, senior eta beterano mailen artean, 35 partaide batu ziren.

eskola eta
bulegoetarako materiala

URBIETA
PAPERTEGIA

Artolaba, 4 behea
94-624 38 32
judith.markes@gmail.com
LEKEITIO



Uronza
Urdaki-Baonza

94-684 37 69
656 78 03 41



Urre, s.a.
Aulestia kalea, 22
AULESTI
94-627 90 37
urre@urre.es

Willow's Tavern
Biker Bar



(PUERTO)
willowstaverns@gmail.com
Lekeitio
94-624-3570



46. Euskal Zine Bilerako irabazle eta parte hartzaileak.

«Maila handiko» lanekin gozatu zuten 46. Euskal Zine Bileran

LEKEITIO //

Julen Zubieteren 'Agur Artzai' filmak irabazi zuen Urrezko Antzarra

46. Euskal Zine Bilerak zinemaz bete zuen Lekeitio-ko Ikusgarri zinema aretoa. «Maila handiko» filmak aurkeztu zirela nabarmendu zuten antolatzaileek, eta

Sail Ofizialetako Lehiaketaren 19 filmeen artean, Julen Zubieteren *Agur Artzai* filmak irabazi zuen Urrezko Antzarra.

Zuzendaritza onenaren saria Aitor Mendilibar eta Jon Aramendiren *Habana Glass* filmarentzat izan zen eta Gazte22 saria Unax Alcobillaren *Kosmos Polita* lanarentzat. Ane Zulaikaren *Emakumeak Blai* filmak

eraman zuen gidoi onenaren saria, eta 19. Kamertoian, Santaku taldearen *Itsasoak daroana* filmak irabazi zuen lehen saria eta GaraIKO taldearen *Ziabogak* bigarrena.

Irureta eta Gabarain Eskal Zinemaren Begirada sarian Elena Irureta eta Ane Gabarain aktoreak omendu zituzten.

Lea-Artibai Amankomunazgotik irtetea erabaki zuten

MENDEXA// Urte luzez Lea-Artibai Amankomunazgoan eta Lea Ibarako Udal Mankomunazgoan egon ondoren, Mendexako Udalak Lea-Artibai Amankomunazgotik ateratzeko erabakia hartu zuen, eta horretarako beharrezko prozedura abiatu zuen. Alderdi biek adostutako prozesua izan zen, eta lankidetzan jarraituko zutela zehaztu zuten: «Orain arte bezala herri eta amankomunazgoekin lankidetzan jarraituko dugu, azpiegitura, baliabide nahiz egitasmoak partekatuz». Hala, Lea Ibarako Amankomunazgoan geratzea erabaki zuten: «Azken urteotan sarritan egin dugu hausnarketa honek suposatzen duen bikoiztasunaz, eta azken finean gure udal ekarpenek izan behar duten errentagarritasunaz. Uste dugu bikoizketak saiheste aldera nahiz errentagarritasun ikuspegi batetik erabaki zentzuduna dela. Izan ere, guk zerbitzu gehienak edota garrantzitsuenak Lea Ibarreko Mankomunazgoarekin ditugu». Aurrekariak ere gogora ekarri zituzten, zehazki, Amoroto izan zen atera zen lehenengo udalerria, eta haren atzetik Gizaburuaga.

Urteetako bermearekin
ESKUALDEKO KONTZESIONARI BAKARRA



URALAR

Gardotza Poligonoa Berriatua

uralar@forduralar.com

Tel. 94 683 34 24 Faxa 94 683 32 87

/ INSTALAZIO ELEKTRIKOA
/ TELEKOMUNIKAZIOA
/ MANTENIMENDU INDUSTRIALA
/ ENERGIA BERRIZTAGARRIEN
GESTIO ETA INSTALAKUNTZA

UKURKAN TALDEA

Antzomendi industriagunea, 9.pab. • Galdona bidea • 20830 MUTRIKU
Tel. 943 603934 / Faxa. 943 607147 / urkan@urkan.net

▶ www.urkan.net ◀



Lehen sektoreari «aitortza» egiteko azoka

MARKINA-XEMEIN// 39. Lea-Artibaiko Urriko Azoka Nagusia arrakastatsua izan zen, beste urte batez. 84 postu egon ziren, eta berritasun modura, showcooking saioa eskaini zuten. Euskadiko 27. Blonda Txapelketa lehiatu zuten, eta abelburuei eragiten zien Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoa izan zuten hizpide.



Ihart Arakistain eta Eneritz Lizardi, txapelak

MUTRIKU// Eneritz Lizardi mutrikuarra eta Ihart Arakistain berriatuarra nagusitu ziren Mutriku lehiatutako Elite Txapelketan. Erika Mugartegi eta Arai Lejardi markina-xemeindarrei bi setak irabazi zizkieten. 2022an Berriatuan jokatu zuten lehenengoz Emakumezkoen Elite Txapelketa.



Herritar guztiak batzeko egun handia

ISPASTER// Hamar kuadrilla, 180 lagunetik gora elkartu ziren XV. Kuadrilla Egunean. Alkarregaz bazkaldu ondoren, Bolo Txapelketa lehiatu eta bi saski zozkatu zituzten. DJ JN lekeitiarraren musika saioak giroa, ederto pasatu zuten, eta, eguna borobiltzeko, txapel jaurtiketan ez zuten hutsik egin.



Aniztasun besarkadez bete zen Ondarroa

ONDARROA// Ekai Lersundi Martinezen gurasoek hirugarren urtez antolatu zuten Aniztasunaren Besarkada Eguna. «Ekai gogoan izatea, aldarrikatzea eta elkarri babesa ematea» izan zituzten helburu. Urtero Aniztasunaren Besarkada Eguna antolatzeko asmoa zeukatela aurreratu zuten.

ZABALA-MT

Gardotza Industrialdea, 1
48710 BERRIATUA
Apdo. 84
48710 ONDARROA
Tel. 94-683 1112
Faxa: 94-683 3242
zabalamt@zabalamt.com
www.zabalamt.com

ZARAUTZ
ALTZARIAK



- Era guztietako altzariak
- Sofak eta osagarriak, tradizionalak zela azken tendentziak
- Diseinu eta oinarrizkoak konpromisorik gabe

94 684 06 53

94 625 85 78

LEKEITIO • GERNIKA

COVIRAN



Tel: 94 683 17 83

Isolanda, 5 - Ondarroa

IZAYFER
ASESORIA-ABOLKULARITZA

ASESORIA IZAYFER ABOLKULARITZA

Fiskal • Laborala
Kontabilitate • Erredimendua
Errenta • Aseguratuak

Agirre Solariu, 11 • 48380 Lekeitiu
Tel: 94 684 12 35 • Fax: 94 684 31 66



Memoriaren itsasoa tantaz betetzen segitu zuten

MUTRIKU// Oroimen Astearen barruan, gogoratzearen garrantzia, belaunaldiz belaunaldi transmititzeak duen garrantzia azpimarratu zuen, inoiz baino ozenago, Saturra-

ran Elkarteak Oroimen Egunean. Mutrikuko eta Ondarroako herritarrez gain, Saturrango kartzelan egondako sei presoren senideak ere ekitaldian egon ziren.



Taloko ibilbidea egin zuten

AMOROTO// Amorotoko txokoak ezagutzeko asmoz, 74 lagunek Taloko ibilbidea osatu zuten. Bertako errotaren eta Elorrango antzina-ko argi-sorgailuaren informazioa jaso zuten.



690 pertsona, ermitarik ermita

AULESTI// Mendizaleentzat galdu ezinezko hitzordua bilakatu zen Aulestiko Ermitarik Ermita Mendi Martxa. 690 lagunek osatu zuten, eta balorazio oso positibo egin zuten.



Jose Mari Rementeria Ohorezko Euskaltzain etxebarritarra hil zen

ETXEBARRIA// Jose Mari Rementeria Ohorezko Euskaltzain etxebarritarra 83 urte gaz zendu zen. 2018ko apirilaren 27an izendatu zuten Ohorezko Euskaltzain. Teologian eta Katekesian diplomaduna (Salamancako Unibertsitate Pontifikala), Ondarroako apaiza izan zen urte askotan. Euskal Elizbarruti arteko Katekesi eta Liturgia batzordean lankide izan zen, eta baita Elizen arteko Bibliaren itzultzaile taldeko kide ere. Rementeriak itzultzaile bezala egindako lanak nabarmendu zituzten Euskaltzaindiatik. Andres Urrutia euskaltzainburuaren berbetan, «euskaltzale sutsua eta langile nekaezina» zen euskarazko testuak bilatzen eta argitaratzen.

ANSORREGI
oinetakoak

erdiko kalea, 9
943 60 33 42
mutriku

GUZURMENDI
KAFETEGIA

Arranegi, 2
• LEKEITIO •
94 624 37 25

11barri
DISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ

11BARRI.FUS

IDEIAK
SORMENEZ
ONTZEN
DITUGU

607 49 01 65 | 607 49 01 62 |
info@11barri.eus



Indarrak batu eta kaleak hartzeko oihu ozenak

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Beste behin, indarkeria matxista errotik desagertzeko eska-erez bete zen azaroaren 25a. «Sexismoaren, desberdintasunaren eta indarkeriaren aurka

borroka egitearen» garrantzia azpimarratu zuten. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren zein herriz herriko talde feministen eta udalen deialdietan bildu ziren herritarrek.

Azaroaren 25ean izandako eraso matxista salatu zuten

BERRIATUA// Berriatuko Foro Feministak eta Mutrikuko Emakumeak Abian elkarteak deituta, mutrikuar batek azaroaren 25ean Berriatuan jasandako eraso matxista salatu zuten Berriatuan abenduaren 1ean eta Mutrikun abenduaren 5ean—udalak ere bat egin zuen deialdiagaz—. Indarkeria matxista lehen mailako arazo politikotzat hartzeko eskatu zieten instituzioei.



Arrantzale bat zendu zen, kaian uretara erorita

ONDARROA// 66 urteko arrantzale bat hil zen Ondarroan, itsasotik lehorrerako sartu-irten batean uretara erorita. LABek salatu zuen administrazioak ez zuela zegokion erantzukizuna bere gain hartu nahi. Osalanek eta Lan Ikuskaritzak ez zuten lan-heriotzatzat jo, behargina «atseden egunetan» zegoela argudiatuta.



Logotipo berria, Lekeitioko Udalarentzat

LEKEITIO// Lekeitioko Udalak irudi korporatibo «modernagoa, hurbilagoa eta garbiagoa» sortu zuen. Udaleko armariaren elementuak izan zituzten kontuan, itsasoa, balea, gaztelua eta itsasontzia, adibidez. Era berean, herritarrekin harremanetan jartzeko bide berriak ere sortu zituzten.



STUDIO

BARNE DISEINUA

ZUEN ETXEA
ZUEN NEURRIARA

📍 Dendeartikalea 44, Lekeitio 📞 94-684 30 14
📧 dk_lekeitio ✉ dkstudioalekeio@yahoo.es





Markina-Xemeinen egin zen eskualde mailako manifestazioa.

Greba Feminista Orokorrak erantzun zabala eduki zuen

LEA ARTIBAI ETA MUTRIKU //

Greba Feminista Orokorra «historikoa eta mugarri» izan zen

Azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorrak erantzun zabala eduki zuen. Lea-Artibai eta Mutrikuko manifestazio orokorra Markina-Xemeinen izan zen

arratsaldean. Egun «historikoa» izan zen: «Zaintza sistema publiko-komunitario baten alde izugarritzko urratsa eman dugu. Sistema kapitalistak, patriarkalak eta kolonialak mantentzen duen zaintza erregimen bidegabearen aurrean gaude. Eta nahikoa da! Kalerara atera gara mundua aldatzeko, beste sistema bat posiblea delako!». Garran-

tzitsutzat jo zuten kalera ateratzea «erakundeak interpelatzeko, enpresariak salatzeko eta inolako ardurarik asumitzen ez duten gizonak ere seinalatzeko».



Dikearen obrak bertan behera utzi zituzten

MUTRIKU // Geldiezin zena, gelditu da lelopean, Mutrikuko portuko dikearen luzatze obrak bertan behera gelditu zirela baieztatu zuten Danborzaleak plataformatik. «Jakin berri dugu obrak burutzen ari den enpresa dena bertan behera utzi eta badoala». Plataformatik jakinarazi zuten, ez zuten iturri ofizialetatik jaso geldialdiaren berri. «Gauzak ateratzen ari dira diketik eta bertako langile batek eman du albistearen berri, lanak bertan behera utzi, gauzak atera eta obra dagoen bezala uzteko agindua dutela. Zortzi hilabete pasatu dira FCC, Eusko Jaurlaritzak dikea luzatzeko esleitutako enpresak, dikeko obrak gelditu zituenetik. Hasieran bi hilabetez etenaldia izango zela esan zuten. Irailera arte luzatuko zela jakinarazi zuten ondoren». Danborzaleek gora-behera horiek eta erakundeen isiltasuna salatu zituzten: «Abenduan urtea beteko da dikea ez luzatzeko herriaren borondatea galdeketa bidez azaleratu genuenetik, eta hamabost urte erakundeen aldetik azalpen txikirik ere jaso gabe. Nahikoa da mutrikuarroi barre eta burla egiteaz».



LEKEITIO
geure
nortasunetik



Erkiaga, nagusi Jai Alai Leaguen eta JAWTea

ISPASTER// Garaipenez betetako urtea izan zen Aritz Erkiaga ispasterarrantzat. Lehenengoz antolatu zuten Jai Alai League irabazi zuen Gorka Sorozabal biarritarragaz, urrian, eta, azaroan, berriz, Jai Alai World Tour zirkuituko txapeldun geratu zen Ispasterko aurrelaria, Thibault Basque bidartarragaz.



Sei eguneko egitarau beteko Gaba Beltza

MUTRIKU// Gaba Beltzean, kalejiran abiatu ziren Gaztetxetik, eta Talaixako mamuari jarraituz, Beheko Plazan bildu ziren herritarrak. «Israel genozida, Palestina aurrera» mezuagaz etorri zen Talaixako mamuari su emanaz amaitu zuten gau magikoa.



Dominaz lepo, Munduko Txapelketan

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Mexikon jokaturako 22 urtez azpiko XI. Munduko Txapelketan, emakumezkoetan, Mugartegik eta Lejardik lortu zuten urrezko domina, eta Lizardik eta Ortiz de Mendibilek zilarrezkoa. Gizonezkoetan, urrea irabazi zuten Urreistik eta Mugartegik, eta brontzea Aldazabalek eta Agirrek.



Hiru-Txirlo Bola Joko Txapelketako onenak

LEA-ARTIBAI// Etxebarriako bizilagun Sergio Rodriguez eibartarrak jantzi zuen txapela Euskal Herriko 33. Hiru-Txirlo Bola Joko Txapelketan. Lander Odiaga markina-xemeindarra hirugarrena izan zen sailkapen nagusian.

Zerbitzua hobetsen, osasuna ahotik hartzen delako.

Alday
horts klinika

ZERBITZUAK: ESTETIKA FAZIALA, INPLANTEAK, ORTODONTZIA, PERIODONTZIA, ODONTOLOGIA ESTETIKOA, PROTESIAK, 3D SKANERRA ETA ORTOPANTOGRAFIA

943-60 39 53 • 618 09 18 52
San Agustín, 5 - behea **MUTRIKU** • klinikaalday@gmail.com

zatozte
2023

GABONAK

2.100€
3 SARI 700€koak
50€ko txapela eta 100€ko txapela

Herrian erori. Herria loratuz!

Zerbitzuak hobetsen, osasuna ahotik hartzen delako.



Ereindako haziak loratzen jarraitu zuten

BERRIATUA// Erroak Loran jaiak jende asko batu zuen azaroaren 25ean, Berriatuan. Azokak hartu zuen plaza goizean -11 artisaren eta 17 ekoizleren postuekin-, bazkariak fron-

toia eguerdian eta erromeria doinuek plazako karpa arratsaldetik aurrera. Zapi morez bete zuten ospakizun eremua, indarkeria matxistaren amaiera eskatzeko.



Euskal Herriko gaztarik onena

MARKIN-XEMEIN// Markina-Xemeingo Larruz gaztak sari nagusia eta ahuntz gazta onenaren saria irabazi zituen II. Euskal Herriko Gazta eta Esneki Lehiaketan. «Oso pozik eta hunkituta gaude, handia da lortu duguna».



Aldarrikapenez beteta, bizirik

LEKEITIO// 15. Lekitto Bixirik herri kroasean euskarak jasandako oldarraldiaren aurkako aldarrikapena zabaldu, eta egun askotan herriko Etengabeko Arretako Gunea medikurik gabe egon izana salatu zuen Amandarri TTK.

Arrainaren enkantea digitalizatu zuten Ondarroako lonjan

ONDARROA// Arrainaren enkantea papera eta boligrafoa eskuan, ahoz ahoz egitetik aplikazio baten bitartez egitera pasatu ziren Ondarroako lonjan. Enkantea digitalizatu, erosleei edozein tokitatik eskaintzak egiteko aukera eman zitzaion. Abantailen artean, «eraginkortasuna, bizkortasuna, segurtasuna eta erosotasuna» nabarmendu zituen Mikel Ortiz Ondarroako alturako Arrantza ekoizleen Erakundeko zuzendariak. Ondarroa aitzindarietako bat izan zen sistema ezartzen: «Sistema berria, gaur gaurkoz, Espainiako estatuko lau bat lonjatan jarri dute soilik. Inguruan gu gara lehenengok». Ortizen hitzetan, erosleak erakartzeko, lortzeko bide berri bat izan zen, eta Ondarroako portuarentzat «onuragarria zen, lana ekarriko baitzuen». Horrez gain, prezioan eragina izan zezakeela adierazi zuen Ortizek, «erosle gehiago egotea eta arrainaren prezioa igotzea lotuta zeudelako». Horrez gain, arraina kontsumitzailearen etxera zuzenean saldu ahal izateko onlineko salmenta berria Bilbon aurkeztu zuten azaroaren 21ean.

KONPROMISOAK
ERRADIATZEN



50 eika



Mikel Agirre, lehen mailan lehiatzeko txartelaren jabe

ONDARROA// Mikel Agirre ondarrutarrak bigarren mailako Bizkaiko Aizkolari Txapelketa irabazi, eta lehenengo mailan lehiatzeko txartela lortu zuen. Gainontzekoekin lehia estuan aritu ostean eskuratu zuen lehen postua. Denboraldiko «jomuga argi bat» lortu izanagatik «oso pozik» agertu zen.



Euskara egunero hauspotzeko beharraren aldarria

LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKU// Euskararen Eguna ospakizun zein aldarrikapen eguna izan zen, eta hori islatu zuten manifestuen irakurketetan. Markina-Xemeinen Nekane Agina-

ga Gezuraga herriko lehenengo irakaslea eta ikastolaren sortzailea omendu zuten. Berrietasun modura, zenbait herritan Gaitu proiektua elikatzeke grabaketak egin zituzten.



Betiko gastronomiagaz, 'Abenduan, On egin!'

AMOROTO// Amorotoko Kultura Elkartearen ekimenez, neguko bertako gastronomia dastatzeko aukera ezinhobea eduki zuten, beste urte batez. *Abenduan, On egin!* leloari jarraituz, sabelak ondo bete zituzten, besteak beste, *Euxebe* txerriaren pintxoekin.



Bertoko produktu eta ekoizleen plaza

AULESTI// Aulestiko Udalak bertokoa kontsumitzea helburu izanik, eskualdeko ekoizle zein artisauei plaza bat eskaini nahi izan zien II. Gabon Azokan, herritarrei kalitatezko produktuak eskura jarritz, eta erantzun ona eduki zuten.

MARGOAK, DEKORAZIOA ETA ERAIKUNTZA-MATERIALA

ONDARRU
Kolonietan

94-613 41 99
San Ignazio, 22A-behea ONDARROA

maite
González osteopatia eta osasun zentroa

Aransolo, 4 - behea BERRIATUA 94-613 98 34 / 661 28 14 66
www.maitegonzalez.net info@maitegonzalez.net

Zeure osasune zaintzen...

Sustrai
BELARDENDA

Iparragirre, 6
ONDARROA
94 683 07 62



Udaletxe berria inauguratu zuten

ZIORTZA-BOLIBAR// Ziortza-Bolibarko Udalak udaletxe berria inauguratu zuen XIX. desanexio egunean. Eraikin berriaren barrualdea berritu zuten: bulegoak, goiko aretoa, osoko bilkurako aretoa, igogailua... Herriarrek udaletxea bisitatu eta egindako lanak ikusteko aukera eduki zuten.



107 korrikalari, I. Berritxuko Krosean

BERRIATUA// 107 korrikalarik parte hartu zuten I. Berritxuko Krosean. 5 kilometroko ibilbidean itzuli bat edo bi emateko aukera eduki zuten parte-hartzaileek. Lagunarteko proba izan zen, Errege Bideko Krosaren oinordetza, eta Urepel Kirol Taldeak eta udaletik lehen ekitaldiaren «balorazio positiboa» egin zuten.



Hutsik egiten ez duen bertsoaren hitzordua

MARKINA-XEMEIN// Kontzezio Eguneako bertso saioan 1.000 bertsozale inguruk berotu zuten Markina-Xemeingo Uni frontoia. Nerea Ibarzabal, Joanes Illarregi, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Miren Artetxe eta Unai Iturriaga aritu ziren bertsoan.



Ondarru, bixi-bixi, izaera eta norabide

ONDARROA// Herriaren nortasunaren adierazgarri zen *Ondarru*, *bixi-bixi* marka aurkeztu zuen Ondarroako Udalak. Andoni Gartzia Alkorta ondarrutarrek sortutako irudiagaz herriaren izaera eta norabidea transmititu nahi izan zituzten.



ZIORTZA - BOLIBAR

askatzailearen sustraieetatik

www.ziortza-bolibar.eus
udala@ziortza-bolibar.com

Udala:
94-616 57 27
Simón Bolívar
museoa:
94-616 41 14














Obrekin hastera goaz

Zelaialde

MARKINA · XEMEIN

WWW.ZELAIALDE.COM · ERAIKUNTZA BERRIA



Irudi birtual ez lortasleak

- 2 eta 3 logelako etxebizitzak, zure terrazara iteera duen egongela zabalarekin
- Terrazak bai ala bai, orain inoiz baino gehiago hedapen bat behar duzu... etxetik irten gabe.
- Atiko ikusgarriak teilatupear, espazio zabalekin
- Behoko solairuak lorategiarekin
- Guztiz hornituta sukaldeak, horma-armairuak logela guztietan, bainugela nagusia guztiz hornitua
- Etxebizitzatik igogailuan sarbide zuzena duten garaje eta trastelekuak
- Logelak mendealdean: gozatu ilunabarreko argi apelaiz



GE

grupo eibar
inmobiliario

MARKINA · XEMEIN:

Okerra kalea 2

630 248 383

comercial@grupoeibar.com

www.grupoeibar.com

Xemeinberri

bizisuna

AZKEN ETXEBIZITZAK!
AUKERAKO GARAJEA ETA KALITATE BIKAINAK

www.xemeinberri.com

